

Basoa energi iturri

Ultzaman herriko egurraz
berotzen dituzte eraikin publikoak



Ana Eizagirre (EHIGE)

“Hezkuntzako eztabaidek ez dute zerikusirik pedagogiarekin,
politikoak dira eta sistema moteltzen dute”

- **Arnold Antonin**, Haitiko zinegilea: “Arriskua dago laguntzera datozen botereek herrialdea euren nahierara berreraikitzeke”
- **Hizkuntza zappinga**: *On commence* euskaraz, eta bukatzen dugu *en castellano*
- **Ander Rodriguez (Alternatiba) eta Ander Santiago (Zutik)**. Gizarte mugimenduetan oinarritutako ezker berri baten bila
- **Net Hurbil**: Israelek apartheidaren Hegoafrikari bonba atomikoak saldu zizkion

Abentura biribilduko dugu!

Erdialdeko Ekialdeko Alpeen edertasuna ezagutzeko txanda duzu orain, **ANTXON ITURRIZA**ren eskutik

**EKAINEAN zehar,
Alpes para Todos II**

Ekainaren 6an, igandea,
lehen faszikulua, eta oparitan,
artxibatze karpeta
eta errepide mapa,
soilik GARA + 1,5 €

Alpes PARA TODOS II

Tirol, Baviera, Ampezzo y Eslovenia


Bildumaren hasiera: ekainak 6, igandea

Bildumaren amaiera: ekainak 30, asteazkena

Guztira, 15 faszikulu

Faszikuluak egun hauetan banatuko dira: igande, astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Faszikulu bakoitzeko, prezioa: GARA + 1€ (lehenengoa izan ezik, GARA + 1,5€ = karpeta + faszikulua + mapa)



mugalari

Ekainean zehar, igande, astelehen, asteazken eta ostiraletan

4 Deabruaren abokatua: Leire Bilbao. Aritz Galarraga.

Gaiak

15 Arnold Antonin, zinema zuzendari haitiarra: "Etengabeko laguntza humanitarioak Haitiko ekonomia deuseztatzen du". Gorka Berasategi.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Inplikazioaz. Ixiar Rozas.
21 Funtzionario naizen hau. Xabier Etxaniz Erle.
Zorpetzea. Joxemari Ostolaza.
22 Benetako dei efektua. Gorka Moreno Márquez.
Espezie bakarra. Andoni Mujika.
23 Zirtak. Iruña-Veleia (bibliografia bat). Angel Erro.
24 Bertso berriak. Zure besarkadari jarriak. Uxue Alberdi.

Erdiko kaiera

- 28 ACT jaialdia. Apustu arriskutsuak Bilbo Handiko agertokietan.** Alvaro Hilario Pérez de San Román.
30 Liburuak. Gema Lasarte.
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Gorka Bereziartua.
34 Ihesi: Leioa (Bizkaia). Sare berdea Bilbo Handiaren bihotzean. Álvaro Hilario Pérez de San Román.
36 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
38 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 41 Ander Rodriguez (Alternatiba) eta Ander Santiago (Zutik). Abangoardia eta esklsiorik gabeko ezker berria helburu.** Mikel Asurmendi.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Israel-Hegoafrika: apartheidia eta bonba atomikoak. Pello Zubiria.

Azkena

50 Xanpainaren aparra. Aingeru Epaltza.

5 Biomasa Ultzaman | Onintza Irureta Azkune

Basoei etekin ekonomikoa atera ezinik zebiltzan azkenaldian Nafarroako Ultzaman. Egurraren salneurria asko jaitsi da. Aurkitu diote, ordea, erabilera: udalerriko lurretako zuhaitzak ezpal bihurtu eta zortzi eraikin publikotako berogailua eta ur beroa elikatzen dituzte.



25 | Literaturia, kristoren martxa letren hirian | Miren Ibarluzea

44 | Code switching, hizkuntz zappinga | Mikel Garcia

10 | Ana Eizagirre | Uxue Alberdi

Gaur egungo irakaskuntzaz mintzatu gara Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko lehendakariarekin; ikasleez, irakasleez eta gurasoez. Bakoitzak bere rola bete behar du hezkuntza sisteman, baina guztien elkarlana da bidea, dio Eizagirek.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruña. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.

Azala: Antza. Azaleko argazkiak: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua





“Zuk mailegu bat eskatu nahi didazu, ezta?”

Leire Bilbao | Bankaria

Hipotekak eta kredituek uzten diotenean,
literatura egiten du.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Herri bitxia gurea: poema liburu bat kaleratu eta bizi guztirako poeta.

Eskertzen dizut titulua, herrian oraindik bertsolari deitzen didate.

Bertsolari? Tira, glamour handiagoa duela ezin uka...

Bertsolariengatik esan nahiko duzu. Poetek ez dute BEC betetzen.

Gustura irakurri nuen *Ezkatak*, memoriak huts egiten ez badit.

Ari naiz lanean, baina badakizu... Xarma handiagoa dauka zain egonazten duenak.

Zain noiz arte? Eskuzabala da gure herria, baina hainbeste...

Nik uste nuen “eta noiz nobela?” zela idazle guztiei egiten zitzaaien galdera. Ez “eta noiz poesia?”.

Baina kasu honetan poetika berria ekarri zuen bildumak...

Zerbait irakurri nuen, bai...

Eta Euskadi Sarietako jendea despistatuta!

Ze sari? Ez al da lehiaketa bihurtu orain?

Aizu, gogoan dut poema bildumari egin nion kritika kritikatu zenidala...

Kritikariak ez du kritika maite?

Ba al da kritika maite duen inor?!

Kritika maitasuna bezain beharrezkoa da.

Haur literaturak inspiratzen zaitu azkenaldian, ia espezializatzeraino.

Umeek errazago barkatzen dutelako, agian.

Oraindik ez didazu barkatu? Egun txarra nuen kritika idatzi nuenean...

Egun hobea izan bazenu, kritika oraindik hobea egingo zenidala esan nahi duzu?

Uste dut baietz. Hala ere, poeta izendapena galduko duzun, horrek kezkatzen nau...

Ez pentsa asko laguntzen duenik, lanerako eta ligatzeko ez behintzat.

Horregatik poeta izatetik haurrentzako idazle izatera. Aurrerapausoa?

Haur erako pausoa.

Poz ez dakit, baina sos gehiago emango du...

Literaturako irabaziek ez dute hipoteka bat ordaintzeko ematen.

Editoreari, akaso?

Bitartekariei, akaso.

Diru aldetik lasaien bizi den idazlea izango zara, banku batean lanean.

Diru asko pasatzen da nire eskuetatik, baina literaturak tentatzen nau.

Literatura eta boterea elkartzen dira zugar; konbinazio interesgarria.

Zuk mailegu bat eskatu nahi didazu, ezta? Letretakoa zarenez, erraz negoziatuko dugu. ■

Basoa energi iturri

Gasolioaren ordeztu egur ezpalak

Ultzamako basoak egurrez gainezka zeuden. Ultzamarrek urtean 130.000 litro gasolio erosten zuten eraikin publikoetan ura eta giroa berotzeko. Hemendik aurrera egur ezpalak eta pelleta botako dituzte surtara. Arindua hartuko dute basoek eta Udaleko aurrekontuek.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco




MAIATZA HASIERAN A15ean gora abiatu ginen kazetaria eta argazkilaria. Zeru urdin-urdina iragarri zuen irratia. Kotxeko termometroa hiru gradu zentigradura jaitsi zen. Udaberriko arroparekin harrapatu gintuen hotzak. Nafarroako Ultzama bailaran dagoen Larraintzarrera heldu ginen, Ultzama udalerriko auzoburura. Udaletxean Patxi Tornaria zinegotziarekin elkartu ginen. Batzar gela ikaragarria da, baina gure ustearen kontra goxogoxo geunden. “Oraindik ez dugu lortu ten-

Basoetatik ateratako egur ezpalari esker, besteak beste, herriko ikastetxeko berogailua elikatzen dute Ultzaman.

peratura erregulatzea, agian beroegi da. Ikastetxean adibidez, geletan eta korridoreetan temperatura bera dago” esan digu Tornaria zinegotzi eta ingeniariak. Urtebete baino ez daramate pellet eta ezpal galdarak erabiltzen eta oraindik hainbat doiketa egiteke dute.

Ultzamako Udalak zortzi eraikin aukeratu zituen proiektua abian jartzeko, denak Larraintzar auzoburuan daude: ikastetxea, osasun zentroa, hiritarren zentroa, zerbitzu sozialak, udaletxea, igerilekua, kiroldegia eta



Ezkerreko eta goiko argazkian Patxi Tornaría Ultzamako zinegotzia eta ingeniaria, ur beroaren neurgailuak eta ezpalaren biltegia erakusten. Ondoan ikusten da nola egur ezpala galdararantz doan. Ezpalak eta pelletak galdara desberdinak erabiltzen dituzte. Argazkikoa pelletarena da.



Egur ezpala.



Basoek balio ekonomikoa berreskuratu dute, modu jasangarrian zaintzen dituzte eta energi iturri berriztagarri bihurtu dira

pilotalekua. Duela urtebetetik hona udaletxean goxo-goxo egoteak ez du esan nahi lehen hotzak zeudenik, jakina, baina zergatik gasolioa alboratu eta biomasari heldu? Bada, basoarekin (Ultzamako azaleraren %62a) zer egin ez zekitelako, “egurrak ez du batere balio eta enkantean ia erregalatu egin behar duzu. Zuhaitzak aterako dituenari bidezidor eta guzti egin behar diozu lursaila eros dezan. Mendiak baliabide ekonomiko izan beharrean zama bihurtu dira. Orain basoak ez ditu inork zaintzen”. Azken kolpea Frantziako haizetea izan da. Milaka zuhaitz eraitsi dituzte eta haiek saltzen ari dira azkarren. Ultzamako basoek sabela beteta dute eta ez daukate non hustu. 2004rako udalerriko baso dena ikertua zuten, badakite zein egoeratan dagoen eta badakite jasangarritasunaren ikuspegitik zein behar dituen basoak. Gasolioa eta propanoa alde batera utzi, eta ezpala eta pelleta erabiltzeko erabakia beraz, batik batik bi arrazoi horiek kontuan izanda hartu zuten.

Astean 7-8 tonako ezpal kamioia

Urtean 600 tona biomasa (erregai) beharko dute zortzi eraikinetako berogailuentzat eta ur beroarentzat. Ultzamako Udalak inguruko enpresa bat azpikontratatu du Ultzamako basoetatik egurra ateratzeko. Zuhaitz osoak hartzen dituzte, txikitu eta ezpaltxoak egin. Hostoak eta adarrak, esate baterako, mendian uzten dituzte basoarentzako ona delako. Egur ezpalak biltegiaren gordeta dituen enpresak eta herri eraikinek eskatu ahala Larraintzarren dagoen biomasa gelara eramaten dute kamioi bat hustutzen dute biomasako biltegiaren, alegia, 7-8 tona ezpal. Biomasa gelan, ezpala erretzeko 700kWko bero potentzia duen galdara dago. 2.500 litro ureko biltegi handia ikusi dugu galdararen alboan. Ura bero-bero dago eta hodi sarean sartzeko prest. Beste 2.500 litro ur hodietan dabilta. Gela honetatik ura 70 gradu inguruan ateratzen da, zortzi eraikinetara heltzeko hodi sarean barrena. Tutu bat ateratzen den bezala beste bat sartzen da, ur beroa bueltan dator, orain 50 bat gradutan. Eraikinetarako hodiak lur azpitik doaz eta behin obra egiten hasita, zuntz optikoa ere sartu zuten.

Ezpal galdarari buruzko azalpenak ematen ari gara, eta pelleta ez dugu aipatu. Pellet ingelesezko hitza da eta pikor txikia esan nahi du. Zerrautsa pikor bihurtzen dute galdarara-



Pelleta.



Hiru gauza hartu dituzte kontuan ezpala ala pelleta erabili erabakitzeko: espazioa, dirua eta lehengaiaren eskuragarritasuna

ko erregai izan dadin (ikus goiko argazkian). Patxi Tornariari galdetu diogu ea zergatik erabaki duten ezpal galdara bat eta pellet galdara bi erabiltzea. Beste modu batera esanda, zein diferentzia dago, erregai bezala ezpala ala pelleta erabili? Hiru gauza hartu dituzte kontuan erabakia hartzeko. Batetik, espazioa. Ezpalak pelletak baino toki dezente gehiago behar du. Bestetik, zenbat diru gastatu nahi den edo ahal den. Hirugarrenik, lehengai eskuratzeko aukerak. Ezpala eskurago dute Ultzaman, bertako basoetatik dator eta pelleta baino merkeagoa da transformazio prozesua motzagoa eta sinpleagoa delako. Pelletera iristeko prozesua konplexuagoa da, eta beraz erregai hori garestiagoa da. Pelleta Iraizotzeko aroztegi bati erosten diote. Aroztegiak bertan sortutako hondakinak erabiltzen ditu pelleta egiteko. Bero potentziari dagokionez berriz, pelleta da irabazle. Litro bat gasoliok ematen duen beroa lortzeko bi kilo pellet behar dira, eta aldiz, hiru kilo ezpal.

Hasieran esan dugu, Ultzamako Udalaren helburuetako bat basoak ustiatzea zela, bere neurrian, baina basoak baliatzea. Galdarako Ultzamako zuhaitzak nahi zituzten, ezpal bihurtuak, nahiz eta instalazioa pelletarena baino zailagoa izan. Kontua da orain 700kWko ezpal galdara eta 50kWko bi pellet galdara dituztela. Bero beharraren arabera aukeratzen dituzte galdarak. Ingeniariak adi-

bidea jarri digu: “Udaberrian pare bat astez uda giroa izan genuen eta eraikinek ez zuten berogailuen beharrik, guztira 40kW baino ez zuten eskatzen. Ezpal galdara gelditu eta bi pellet galdara txikiak jarri genituen abian, ezpal galdarak potentzia maximoan askoz ere errendimendu hobea baitu”.

Galdara sistema berriak aurrekoaren bero potentziaren erdia behar du. Eta hori nola izan litekeen? Bada, egun osoa daukate energia sortzeko eta herriko eraikinek ordutegi desberdinetan eskatzen dute energia.

Igerilekuan epel-epel

2009ko maiatza-ekainean biomasa erregai duen berokuntza sistema abian zen. Lehen probak igerilekuarekin egin zituzten. Umeen-tzako putzu txikia eta putzu handia daude Larraintzarren eta iaz arte ura 17-18 gradutan egoten zen. “Eguzkiak jotzen duenean bero, baina ezkutatu orduko hotz egiten du” dio Tornariak, eta arrakasta handiegirik ez omen zuen igerilekuak. Iaz putzuetako ura 21-22 gradutan doitu zuten eta ultzamarrek eta inguruko herrietakoek aldea nabaritu dute. Abonuak hirukoiztu egin dira eta ikastaroetan 20-25 haur beharrean 75ek eman dute izena.

Galdara berrien emaitza gorputzean nabaritu zuten herritarrek iazko udan, baina ez pentsa proiektua abian jarri zenean oso bai-kor zirenik. Patxi Tornariaren ustez, bero-

Ultzama udalerriaren apustua

- ✓ **Biztanleak:** 1.663 (2008). **Azalera:** 96,7 km², %62 basoa, %24 laborantza, gainerakoa urbanoa.
- ✓ **2009ko** maiatza-ekainetik galdarak martxan daude.
- ✓ **Proiektuko eraikinak:** Udaletxea, Gizarte Zerbitzuak, Hiritarren Zentroa, Osasun Zentroa, pilotalekua, kiroldegia, ikastetxea eta igerilekua.
- ✓ **Helburua:** Urtean 60.000 euro aurreztu erregaian eta 410 tona CO₂ gutxiago bota.
- ✓ **Biomasa zertarako?** Eraikinetan berogailua eta ur beroa izateko.
- ✓ **Lehen:** Urtean 130.000 litro gasolio eta 103.920 euro. Propanoa (2008): 2.200 kg. eta 3.220 euro.
- ✓ **Amortizazioa:** Lau urte eta erdian.
- ✓ **Basoaren gaitasun produktiboa:** 6.000 tona urtean. Urtean kontsumituko den biomasa: 600 tona.
- ✓ **5.000 litro ur:** 2.500 litro hodietan dabilta eta beste 2.500 biltegian daude.
- ✓ **Graduak:** Ura 70 gradu zentigradu inguruan abiatzen da eta 50 inguruan itzultzen da.
- ✓ **Ezpal galdarak** 700kWko potentzia du. **Pellet galdarak** berriz, bi dira, bakoitza 50kWkoa.
- ✓ **7-8 tonako** ezpal kamioia kontsumitzen dute astero.



Ganaduaren txiza jaso eta biogas bihurtuko duen proiektua abian du Udalak. Ganadu pixa horri ezpala eta pelleta erre ondorengo hautsa nahasteko asmoa dute

kuntza sistema berria abian jartzearen alde Patxi Pérez alkatea egoskortu zen. “Norbaitena baldin bada meritua alkatearena da. Neurri batean arriskua hartzea izan zen, nahiz eta teknikoki eta logistikoki bideragarria izan”. Zinegotziaren belarrietara honelakoak heldu ziren proiektuaren berri eman zenean: atzera egitea da hori; ez du funtzionatu, egunero gainean egon beharko da; kudeaketa konplikatu da...

Erraz-erraza ere ez da izan, Tornariak berak aitortu digu iazko udazkenetik urte bukaera artekoa ikasketa eta sufrimendua izan zela. Urri erdialdetik aurrera galdarek gogotik egin behar izan zuten lan eta arazoak ere orduan pilatu ziren: ezpala handiegia dela, hemen butxadura dagoela, han ez duela ondo berotzen... begirik kendu gabe doiketak egiten. Orain lasaiago dabilta, urte hasieratik

zorrotz kontrolatzen dute egunero kontsumitzen duten bero potentzia eta erretzen duten lehengai kopurua. Jarritako helburuetatik gero eta gertuago daude. Esate baterako, kalkulatu da litro bat gasoliok ematen duen beroa lortzeko hiru kilo ezpal erre behar direla. Bada, duela gutxira arte lau kilo ezpaletan zebiltzan.

Ganadu txiza eta etxeko hondakinak

Zortzi eraikin publiko berotzen dituzte pellet eta ezpal galdarek, baina etxebizitzak ez daude zirkuitu horretan. Ingeniariak ez digu horretarako intentziorik dutenik adierazi, baina esan digu duela lau-bost urtez geroztik inguruko hainbat etxetan pellet galdarak jarri dituztela. Nafarroako Gobernuak galdarak diruz laguntzen ditu. Ultzamako Udalak etxebizitzek eragindako egur hondakinak jasotzeko modua dauka antolatuta. Hau da, Ultzama moduko landaguneetako bizilagunek, baliatu edo berrerabili ezin dituzten egur hondakinak izaten dituzte, nora bota ez dakitela. Horientzako edukiontzia dago biomasako eraikinaren ondoan eta material hori ere ezpal bihurtzen dute. Egur hondakinen edukiontzia alboan pelleta eta ezpala erre ondoren geratutako hautsa dago pilatuta beste edukiontzi batean. Hori ere baliatzeko

Pellet galdara Beizaman

Gipuzkoako Beizama herriak 190 biztanle ditu. 2009ko irailetik zortzi etxebizitza eraiki berri pellet galdara erabiltzen ari dira ur beroa eta berogailua izateko. Beizamako Udalak enpresa bati esleitu zion pellet galdararen instalazioa eta baita ondorengo mantenua ere. Hainbat urtetan, enpresa hori arduratuko da berotze sistemaren mantenuaz eta bizi-lagunei kobratzeaz. Behin inbertsioari buelta emandakoan lehiaketara aterako da berriz. Pellet galdara zortzi etxebizitzetara lotua dago hodi sarearen bidez. Etxebizitzak ez ezik Udaletxea, Natur Eskola eta Udala-ren aterpetxea ere hodi sareak batzen ditu. Oraindik ez dira hasi azken horietan pellet galdara erabiltzen, baina asmoa urtea bukatu baino lehen hastea da.

Pelleta Bizkaitik ekartzen dute, eta beraz, erosi egiten dute. Oraindik proiektu zehatzik ez badute ere, Beizamako Udalean bada-kite aukera egongo litzatekeela pelletaren ordez egur ezpala erabil-tzekoa. Beizamako herri basoetan biomasa nahikoa dago galdara elikatzeke. Bertako lurretako egur hondakinak baliatuko balituzte hainbat onura lortuko lukete: batetik, ezpala gas propanoa eta pelleta bera baino merkeago atera daiteke, eta bestetik, bertan ekoiztutako lehengaia baliatuko litzateke eta bertan kontsumitu. Horregatik, orain duten 220kWko galdara bi erregeaintzako presta-tua dago, bai pelletarentzat eta baita ezpalarentzat ere.

Etxebizitzako bizilagunak gustura dira, lehen hilabetetako doike-ta arazoez gain, etxea eta ura primeran berotzen dituztelako. 2010. urtea bukatzerako lehen aipatutako hiru eraikin publikoak sistema berriarekin abian jartzea falta zaie. Eta beharba-da, laster animatuko dira Beizamako basoetatik egur ezpala atera eta galdara elikatza.



asmoa dute, izan ere, bertako ganaduaren txiza jaso eta bio-gas bihurtuko duen proiektua abian dute. Ganadu pixa horri edukiontziko hautsa nahasteko asmoa dute.

Ultzamar batzuk kezkatuta zeuden, basoei begira. Betiko negozioak pot eginda bestelako irtenbideak behar ziren. Urte-bete baino ez da proiektua abian jarri denetik, baina badi-rudi etekinarekin gustura direla herritarrak: basoek balio eko-nomikoa berreskuratu dute, modu jasangarrian zaintzen dituzte eta energi iturri berriz-tagarri bihurtu dira. Helburu horiek betetzen segitzen badu-te, agian, beste herri batzuei gogoia piztuko zaie, Tornariak berak esan digunez, eraikin publikoak biltzen dituen horre-lako sarrerik ez baita Euskal Herrian. ■

argia.com Diaporaman biomasa-ren prozesua errazago uler daiteke argazki sortari esker.

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak
- eta askoz gehiago...

**INGURU
ABENTURA**

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Senderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho mas...

www.inguruabentura.com

info@inguruabentura.com

Tel: 635 748 948

San Juan 18

Albeniz - Asparrena

Araba

Ana Eizagirre

«Hezkuntzak akordio bat behar du lasai lan egiteko»

Zarauzko malekoian hitz egin digu bere bizi-esperientziaz, itsasoari begira. Jubilatatu egin nahi omen du, baina erretiratu ez. Olatuak badatoz eta badoaz, baina itsasoak hor jarraitzen du.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Hamaika neba-arrebatan zaharrena zara. Betidanik erdi-irakasle erdi-guraso?

Etxean oso goiz ikasi nuen arduratsua eta konprometitua izaten. Betidanik izan dut ingurukoen kezka, eta hamaika neba-arrebatan zaharrena izateak bizitzako esparru guztietan eragin didala uste dut. Esaterako, leku guztietan gorde behar izaten dut niretzako esparru bat, etxe barruan ere bai: nire lekua daukat butakan. Espazio propioa behar dut eta hori txikitatik datorkit, hainbeste jende ginen norberarentzat oso leku gutxi baitzegoen, eta gure txokoak bilatu behar izaten genituen. Butaka atzean eta ohatzearen atzean banuen nik nire txokoa, eta han esertzen nintzen irakurtzera. Zaharrena izateaz gain emakumea izateak ere asko markatu du nire bizitza, espazio propio horren bila borrokan aritu bainaiz bizitza osoan. Gure belaunaldiko emakumeak arlo guztietan izan gara hezitzaile: neba-arrebekin, senarrarekin, gurasoekin... Bizitza osoan emakume bezala gure eremua defendatzen egon behar izan dugu. Nik erronkak ikusten nituen alde guztietan, eta erronkek niretzat aukera esan nahi duteenez, aukeraz betetako bizitza izan dudala sentitzen dut.

Espazio propioa kudeatzeaz gain, espazio publikoa eta pribatua kudeatzen ikasi behar izango zenuen gaztetatik.

Kuriosoa da, aipatzen dudana esparru propio horrek ez baitu itxia izan beharrik. Ondo egoteko leku bat, eroso egoteko leku bat, niretzako leku bat imajinatzen dudanean marko hau imajinatzen dut beti: Zarauzko malekoia, itsasoari begira. Nire burua Zarauz-

ko hondartzan jartzen dut, eta zabaltasun horrek bildu egiten nau. Dikotomia horretan bizi izan naiz beti: alde batetik, nire kuadrakula behar dut, gauzak ordenatuta eta antolatuta izatea, baina bestetik, espazio zabalerara irekitzen naiz, eta aitortzen dut espazio zabalak gauza pila bat eman dizkidala bizitzan.

Zarautzen jaio arren gazterik joan zinen Bilbora bizitzera. Zer izan zen zuretzat Bilbo?

Bilbo paradisua zen niretzat, aitona eta amona bertan bizi ziren eta Zarautzen ez neukan guztia neukan Bilbon. Batetik, sekulako etxea: Zarautzen 90 metro koadro geneuzkan hamahiru pertsonentzat eta han 150 neuzkan niretzat bakarrik. Gainera, aitona eta amona beti begira neuzkan, eta maitasun handia ematen zidaten. Gabonetan jaiotza handiak ikustea zen Bilbo, txokolatea txurroekin jatea zen Bilbo, zine handira joatea, jaietan zaldiko-maldiko handietan eta trolebusean ibiltzea zen Bilbo... Hori umetan, baina gaztetan itzuli nintzenean, Bilbo oso iluna zela ohartu nintzen. Hala ere, askatasunaren hiria zen niretzat, Zarautzen kale izkina bakoitzean topatzen nuen senideren bat. Lehenbiziko aldiz Donostiara manifestazio batera joan nintzenean, amaitzerako deika neukan ama, ea zertan ibili nintzen. Zarautzen ez nuen errebelia ateratzen eta Bilbon, 19 urterekin, mundu berri bat topatu nuen, non errebelia atera nezakeen eta erabakiak neronek hartzen nituen. Gainera, lanean hasi nintzen, Bilbon soldata neukan, askatasuna eta mundua aurrean. Lan egiteko eta ardurak hartzeko leku bihurtu zen, baina nire ardurak ziren, ez familiakoak, eta neure burua beste



era batean antolatzen hasi nintzen: euskararen aldeko taldeetan eta auzo mugimenduetan sartu nintzen. Ezkerraldean egiten nuen lan eta Barakaldo, Sestao eta inguruak ezagutu nituen. Oso urte aberatsak izan ziren: irakaskuntzan gauza pila bat mugitzen ziren, dena guk egiten genuen, materiala sortu, mugimendu pedagogiko berritzaileak ikasi... Ezkerraldean hasi nintzen frankismoaren aurkako politika egiten, langile mugimenduari oso lotuta, eta hor finkatu zen nire baitan konpromiso soziala. Eliza aspaldi neukan atzean utzita, baina bazen mugimendu bat Sozialismoaren aldeko kristauak izena zuena, eta gauza asko mugitzen zituzten: lan mundua, auzo-ekintzak... Uste dut hor hasi nintzela konpromiso soziala hartzen. Bilbo konpromisoaren hiria izan zen niretzat. Etxean ez nuen ezer kontatzen, jakina, bizitza paraleloak neuzkan Bilbon eta Zarautzen.

Noiz hasi zinen gizarte mugimenduekin eta politikarekin lehen harremanak izaten?

Gaztetan unibertsitateko hasierako mugimenduetan ibili nintzen, oraindik sindikalgin-tza ez zegoen finkatuta eta ikasle batzordeetan hasi nintzen. Gero Ingalaterran eman nituen bi urte, eta handik bueltan, mugimen-

Nortasun agiria

Ana Eizagirre Zarautzen jaio zen 1949an. Hamaika neba-arrebatan nagusia da. Gazte-gaztetatik hezkuntzarekin, sindikal-gintzarekin eta mugimendu sozialekin konprometitua, irakasle izan zen urte askoan. Azken urteetan EHIGE-ko (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko) lehendakaria izan da, eta gaur egun koordinatzaile nagusia. Jubilazio ofizialaren atarian dago. Erretiroa hartu nahi omen du lanean segitzeko.

du politikoan sartu nintzen zuzenean. Alderdi politikoetan. Mugimendu komunistaren inguruan militatu nuen. Politikan hasi nintzeneko finkatuta neuzkan nortasuna eta identitate euskalduna, eta nahiz eta alderdi horiek guztiak oso zentralistak izan, Estatuko alderdiak baitziren, oso oroitzapen ona dut garai hartaz. Franco hil ostean Madrilen konstituzio berria egiten hasi zirenean zazpi hilabetez egon nintzen bertan. Ordurako kartzelatik aterata nengoen, 75ean sartu baikintuzten gu, Txiki eta Otaegirena gertatu zenean, baina Franco hil aurretik askatu gintuzten.



"Amek sustatzen dute partaidetza eta eskoletan ezinbestekoa den papera betetzen dute: bitartekaritza"

Konstituzioa Espainia mailan eztabaidatu aurretik, lan handia egin zen unibertsitate irakasleekin eztabaida hura nola planteatu erabakitzeko, eta beste bi euskaldunekin batera izan nintzen Madrilen konstituzioan autodeterminazioaren gaia ekarpenetan nola agertu behar zen eztabaidatzen. Askok ikasi nuen garai hartan: autodeterminazioaren inguruko teoriak, independentzia zer zen eta zertarako nahi genuen... Sentitzen nuena teorizatu nuen, eta batez ere ikasi nuen, nik sentitzen nuena ez zela inoren kontrako zerbait, gure aldekoa baizik. Teoria eta sentimendua lotu nituen eta nire ideiak defendatzen ikasi nuen beste inori kalterik egin gabe. Ordudanik, beti izan dut pentsaera politikoa, baina gehiago mugitu naiz gizarte eragileen esparruan.

Nolakoa izan da geroztik politikarekin izan duzun harremana?

Beti izan dut harremana politikarekin, gustatu egiten zait politika, baina uste dut politikak baino gehiago betetzen nautela eginkizunek

eta pertsonen, eta arreta pertsonengan eta eginkizunetan jartzen baduzu, eragile sozialengana hurbiltzen zara politikara baino gehiago. Politikatik baino askoz lan gehiago egiten da inguruan daukazu esparrutik eta ziur nago esparru hauetan gehiago lortu dudala politikan sartu izan banintz baino. Izan ditut aukerak politikan sartzeko, baina ezetz esan izan dut. Hala ere, beti izan dut kezka politikoa, eta oso argi izan dut nori eta zergatik ematen diodan nire bozka. Eta ez naiz alderdi bat bozkatu eta gero kritikan aritzen denetakoa, politika bere kontraesanekin ulertzen dut. Bizitzan gauzak ez dira egiten errazak, eta erabaki bat hartzen duzunean erabaki osoa hartzen duzu, ezin zara zuriarekin geratu eta grisa baztertu. Politikariek euren lana egiten dute.

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko lehendakari ezagutu zaitugu urtetan. Noiz erabaki zenuen guraso gisa antolatzea?

Guraso izan aurretik erabaki nuen gurasoen mugimenduari babes ematea. Irakaskuntzan ari nintzen lanean, euskara zabaltzen ari ginen ikastetxeetan, 1980a-eko izango zen, eta gurasoei hitzaldiak ematen hasi nintzen: eredu aukeratzeko edo eredu aldatzeko laguntza eskaintzen, nonbait D eredu bat zabaldu nahi zuten gurasoei laguntzen... Irakaskuntzan jarraitzen nuen lanean eta sindi-

kalgintzari lotuta nengoen, baina gehiago erakartzen ninduen euskararen inguruko mugimendu guztiak. 1983an semea jaio zen, eta borroka handia egin genuen irakaskuntza publikoan D eredua zabaltzeko. Orduan hasi nintzen borondatezko lanean, eta sindikalgin-tza bigarren mailan uztea erabaki nuen, guraso elkarteetan lan handia zegoela ikusten bainuen, eta ohartzen bainintzen mugimendu hori indartzeak asko lagunduko ziola irakaskuntza publikoari. Federazioan sartu nintzen eta hiruzpalau urtetan zuzendaritza taldean nengoen. Urte askoan biak uztartu nituen, irakaskuntza eta gurasoen elkarteko lana, baina irakasle postua galdu gabe guraso elkar-tearentzat lan egiteko aukera izan nuen, eta badira hamabost urte horretan ari naizela.

Nolakoa behar du gurasoen paperak hezkuntzan?

Lehenik eta behin, gurasoek argi izan behar dute gurasoak beraiek direla, hau da, seme-alaben ardura euren dela, jaiotzen direnetik, eta nire amak esaten duen bezala, betiko. Gurasoek oso argi izan behar dute beren guraso papera: ardura euren da. Eta ardura hori ez da desagertzen haurra eskolara doanean. Fidatu egin behar da, jakina, baina gurasoen ardura da haurrak zer egiten duen eta nola hazten ari den jakitea. Bi norabideko kolaborazioa izan behar da: gurasoak eskolaren kolaboratzaile eta eskola gurasoen kolaboratzaile. Gurasoek argi izan behar dute guraso papera ez dela haurra eurekin dagoen momentuetara mugatzen, beste esparruak ere beren ardura direla. Hurrei nabaritu egiten zaie gurasoak eskolan inplikaturik badaude. Eskola beste era batera onartzen dute eta haurrak ere gehiago inplikatzeko dira. Gainera, gurasotik gurasora asko ikasten da, eta arazoak ere erlatibizatu egiten dira besteekin elkarbanatzean. Gaur egun badirudi, batetik, haurren ardura osoa gurasoena dela, baina bestetik, ematen den mezua da gurasoak ez

direla ezertaz arduratzen eta, dikotomia horretan, familia askotan gauzak gaizki egiten ari direla uste dute. Guraso txarrak direla uste dute askok, eta erruduntasunetik abiatuta jokatzeko dute. Galduta sentitzen dira. Gurasoak, euren seme-alabentzako nolako heziketa nahi duten pentsatu beharrean, eskuliburuaren bila etortzen dira, baina euren buruengan duten konfiantza faltagatik gertatzen da hori, gauzak gaizki egiteko duten bel-durratetik.

Lehenengo eta oraingo gurasoak. Nolakoa izan da eboluzioa?

%100ekoa. Oso sistema diktatorialetik partehartze sistemara pasa gara. Gaur egun ez dago kuadrularik, ez dago eskulibururik, hesitik kanpo bizitzera behartuta gaude, eta zailagoa da mugarik gabeko eremuan bizitzea. Gaur egungo gurasoek uste dute euren rola ez dela arau-ekarlea eta autoritatezkoa izan behar, baina seme-alabei mugak jarri behar zaizkie, bestela galdu egiten dira.

Gurasoez ari gara, baina bileretara ez al dira oraindik gehienbat amak joaten?

Erronka horrek mahai gainean jarraitzen du, bai. Guraso bilera guztietara amak etorri izan dira batez ere; hori bai, batzarra tokatzen zenean eta ordezkariak etorri behar zuenean, orduan aitak. Lehendakariak beti gizonezkoak ziren. Gizartean izan den eredua errepikatu da eskoletan. Egia da amen guraso elkar-teaz hitz egin behar genukeela agian, partaidetza amek sustatzen baitute. Amak dira gauzak antolatzen dituztenak, baina ez hori bakarrik, eskoletan ezinbestekoa den papera betetzen dute amek: bitartekaritza. Bitartekaritza ez formala: patioan egiten dena, guraso elkarteko batzarretan egiten dena, formakuntza saioetan eta kafe garaian egiten dena. Itxuraz inportantzia gutxiko bilkura horietan oso gauza garrantzitsuak egiten dira: arazoak partekatzen dira, askotan irten-



BILBO

Ekainaren 3tik 13ra, Arenalean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi

irakurriz!



AZKEN HITZA

Hiru ele hiru eleko ereduaz

"Hiru ele: euskara galdu gabe. Helburua hizkuntzen markoa sortzea da. Hizkuntzen marko bat behar dugu! Hori da garrantzia duena. Oraingo aldaketarekin, beste esperientzia pilotu bat sartuta zer da lortzen duguna? Hiru eredu izan beharrean lau izatea. Argi baldin badaukagu helburua hizkuntzen markoa sortzea dela, esperientzia guztiak horra bideratuko dira, baina hori argi ez badaukagu esperientziak egiten jarraituko dugu norabide jakinik gabe. Helbururik gabe. Familiei oso ondo iruditzen zaie ahalik eta hizkuntza gehien ikastea, denok diogu bai, baina euskara galdu gabe. Elebitasunetik abiatu behar dugu eleaniztasunera".

bideak aurkitzen dira, laguntza eskaintzen zaio behar duenari... Gure gizartean oraindik badakigu laguntza eskaintzen, nahiz eta mezu amerikar guztiek kontrakoa erakusten diguten, elkartasuna naturalki bizi da amen artean. Azken hamarkadan ume txikien aitak ere hasi dira inguratzen, baina bide luzea dago egiteko. Asko kostako zaigu emakumeei ardura burutik kentzea, milaka urtetako zizelkatzea dago hor, eta gauzak aldatzeko gizartearen antolakuntza aldatu behar da: eredu honekin jarraituz gero emakumeok gainkargarekin jarraituko dugu.

Jaurlaritza aldatzen den bakoitzean hankaz gora jartzen da hezkuntza. Ildo edo norabide sendorik badago?

Politikak dena mugitzen du, eta politikariak ez dira konturatzen politika ez dela egun bateko gauza, eta ni gobernura heldu arren ezin dudala besteek egin dutena hankaz gora jarri. Gainera, berez, inork ez du lortzen dena hankaz gora jartzea. Ez dago aurreko

hogei urteetan egin dena lau urtetan aldatzeko gai den pertsonarik. Ezinezkoa da, baina badirudi bakoitzak bere eremua defendatu behar duela, txakurrek bezala. Irakaskuntzak lasai lan egin ahal izateko akordio bat behar du. Heztea pentsatzea da, epe luzera planifikatzea, gaur egiten dudanak hemendik hogeit urtera balio behar duela jakitea, pertsonekin lanean ari garela jakitea, eta jakitea pertsona horren bizitzak, gauzak ondo, nireak baino gehiago iraungo duela. Politikariei ahaztu egiten zaizkie halako gauzak. Baina gobernu eta politikari guztien gainera, sistemak berak markatzen du norabidea, ikastetxeek eta ikastetxeetan lan egiten dutenek. Beraz, sasi guztien gainera, gobernu guztien gainera sistema mantendu egiten da. Kontua da, horrenbeste aldaketarekin moteldu egiten dela sistema. Ikastetxeari ezin zaizkie egunero hamar agindu diferente eman. Lehentasunak finkatu behar dira, eta eztabaidatu beharrekoa eztabaidatu, ze eztabaidek, normalean, ez dute pedagogiarekin inongo zerikusirik izaten, eztabaida politikoak izaten dira, sistema moteltzen dutenak ezer ekarri gabe. Bitartean, curriculumean landu behar diren konpententziak landu gabe jarraitzen dute.

Etorkinen integrazioaz zer gogoeta egiten duzue EHIGetik?

Etorkinen integrazioa eskolako giroaz gain eskolaz kanpoko giroak baldintzatzen du. Eskola esparru barruan etorkinak integratzen dira, baina handik kanpo baztertuta sentitzen badira, jasotzen duten mezua "eskolan bai, baina eskolatik kanpo ez" baldin bada, integrazioa ez da sekula erabatekoa izango. Asko nabaritzen dugu hori. Kanpoan ez badago integratzeorik, eskolan egiten den lana partziala izango da. Horretarako oso garrantzitsua da etorkinen integrazioan zonalde guztiko ikastetxeek parte hartzea. Auzo batzuetan etorkin kopuru handiagoa izan arren, ghettoak sortzea saihestu behar da, bestela ez baitago integratzeorik. Benetako integrazioa lortu nahi badugu, eskolaz gain beste eremu batzuk ere zabaldu behar dizkiegu. Askotan esaten da gure eskola anitza dela, baina zer esan nahi dugu horrekin? Kolore askotakoak garela? Hizkuntza askotako ikasleak dauzkagula? Integrazioa hori baino askoz gehiago da. Leku batean integratzea nortasuna galdu gabe besteekin harreman bizia izatea da, joan-etorrikoa. Horregatik, inportantea da etorkinak gure kulturaren integratzea, baina euren nortasuna garatzeko aukera ere eman behar zaie, talde nortasuna mantentzeko zailtasunak daude-nean sortzen baitira ghettoak. ■

• Arnold Antonin, zinema zuzendari haitiarra •

«Etengabeko laguntza humanitarioak Haitiko ekonomia deuseztatzen du»

Arnold Antonin –Cannesko festibalean eta FESPACOn saritua– Haitiko lurrikara gertatu eta berehala hasi zen *Chronique d'une catastrophe annoncée* (Iragarritako hondamendiaren kronika) filmatzen. Lurrikaran hil ziren 250.000 pertsonen heriotzan utzikeria politikoak zenbaterainoko ardura duen salatu nahi izan du.

GORKA BERASATEGI

Urtarrilaren 12an lurrikara gertatu zen Haitin. Lurra 7 graduko indarrez astindu zuen (Richter eskalan) eta Port-au-Prince hiriburutik 15 kilometrora izan zen epizentroa. Nola bizi izan zenituen segundo horiek?

Arratsaldeko 16:53an gertatu zen. 30 segundo izan ziren. Ni etxera iritsi berria nintzen, ohikoa baino lehenago irten bainintzen bulegotik. Lurrak dar-dar egin zuen eta berehala etorri zitzaidan burura: kito, heldu da. Bage-nekien Haitin une batetik bestera horrelako zerbait etortzeaz zegoela eta momentu hura heldu zela jakin nuen.

Zein izan zen jendearen erreakzioa lurrak dar-dar egin zuenean?

Modu desberdinean jokatu zuen jendeak. Kanean zeudenetatik batzuek eraikinen barruetara jo zuten, zorigaiztoko erabakia izan zen; beste batzuk kalera irten ziren... Orokorrean builaka hasi zen mundu osoa. "Jesus! Jesus!" oihukatzen zuten. Gurea oso herrialde erlijiozalea da eta Jainkoari deika hasi ziren asko. Munduaren amaiera zela oihukatzen zuten emakumezkoak entzun nituen.

A. ANTONINEK UTZIA



Eta lurrak astintzeari utzi zionean nolakoa izan zen jendearen jokabidea?

Ikara sentsazio orokorraz gain, ekintzari berehala heldu zitzaion. Segituan hasi zen jendea lurperatutako gorpuen bila, hondakinen azpian harrapatutako gorpuak ateratzen, zaurituak ospitalera eramaten... Segituan gainezka egin zuten ospitale guztiek. Ikara nagusitu zen, neurri batean komunikazio guztiak eten egin zirelako baita ere. Ez zegoen irratrik, irrati guztiak suntsitu ziren bakarra izan



MAXWELL REYES



CHAMOROBIBLE.ORG

ezik eta irrati horrek (Signal FM) etengabe egin zuen lan. Antolatzaile kolektiboa izan zen, herrialdean bizirik zegoen ahots komunitario bakarra. Nik ere horra jo nuen nire familiari bizirik nengoela esateko eta hortik irten ziren atzerrirako mezuak.

Estatuak zein jarrera izan zuen?

Estatua erabat desagertu zen. Ordurako oso ahula zen Haitiko Estatua; ez dio inolako zerbitzurik eskaintzen herrialdeari, ez da ezertaz arduratzen. Gainera, lurrikararen ondorioz eraikin publikoak desegin ziren. Palazio Nazionala, Parlamentua, Justizia Jauregia... Estatuko hiru botereak etorri ziren behera fisikoki. Gobernuak ez zuen inolako presentziarik agertu, ez zuen irrati baliatu herrialdeari aginduak emateko, hamabi egun pasa ziren lehendakariak herriari hitz egin zion arte.

Hogei urte inguru dira adituek lurrikara handi bat gertatuko zela ohartarazten hasi zirela. Azken urte hauetan gertatuko zela aurreikusi zuten eta horretarako neurriak eskatu izan dituzte hainbat elkarte. Zer gertatu zen eskari horiekin?



RNW.NL

Irudietan, lurrikararen osteko egunak. "Egokiagoa litzateke bertako produktuek erostean oinarritzen den laguntza. Era horretan, laguntza ekonomiaren suspertzaile ere bihurtzen da eta herrialdearen garapenerako bultzadaxoa da", dio Antoninek.

Haitik aurretik jasan zuen azken lurrikara indartsua orain 200 urte gertatu zen baina azken urteetan hainbat lurrikara txiki bizi izan ditugu eta horiek zetorrenaren aurrekari zirela ohartarazi zuten sismologoez. Herrialdea bi faila aktibok zeharkatzen dute eta Port-au-Prince horietako baten gainean dago eraikia. Gizarte mugimenduek ere prebentzio neurriak eskatu zituzten eta herritarren hezikuntzarako beharrezko neurriak har zitezela. Pertsonalki simulazio nazionala egin zedila eskatu nuen, jendeak nola erreakzionatu behar zuen jakin zedin. Milaka haitiarrek martxa batean parte hartu zuten "Suizidio kolektiboari ez!" lemapean.

Zein harrera izan zuten eskari horiek?

Estatuak ez zien eskariei erantzun. Prebentzio Zibil Nazionala izeneko erakundeak saiakera egin zuen, zikloien aurkako zenbait neurri hartu ziren, aurretik herrialdea hainbat zikloiek astindu zutelako baina lurrikarek dagokienez ez zen ezertxo ere egin. Estatu haitiarra herritarrenganako arduragabekeria kriminalean bizi den estatua da.

Lurrikara gelditu zenean berehala hasi zinen lanean.

Lurrikara gelditu zenean dena birrinduta zegoela jakin nuen, jendea entzuten nuen oihuka eta berehala kamera-gizona kalera irten zen irudiak biltzera. Lana koordinatzen aritu nintzen eta hurrengo egunean irten nintzen gertatu zena bertatik bertara ikustera eta horrelako egoeretan zinemagileak nire ustez egin behar duena egitera, hau da, testigantza ematera. Banekien inork gutxik egingo zuela lan hori eta hedabide erraldoietako irudiak izango zirela nagusi, baina haiek betikoa erakutsiko zutela eta haitiar baten ikuspegitik gaia landu beharra zegoela ikusi nuen.

Zein harrera izan du *Chronique d'une catastrophe annoncée* dokumentalak?

Haitin estreinatu zen eta terapia modukoa izan zen. Ez dira hurrei erakutsi beharreko irudiak, baina helduek ikusi beharrekoa dela uste dut. Errealitateari begiratu egin behar zaio egoera gainditu nahi bada eta Haiti memoria gutxiko herrialdea da. Eskandalu batek bestea estaltzen du, hondamendi batek bestea... Hondamendiz hondamendi bizi gara eta horrela ez jarraitzeko gertatutakoa aztertu beharra dago. Gertaera naturalak ezin dira saihestu, baina behar baino jende gehiago hil zen lurrikaran, 180.000 pertsona bizirik egon zitezkeen zenbait neurri aldeztatik hartu izan balira.

Nolakoa zen Port-au-Prince hirigintza eredua lurrikararen aurretik?

Port-au-Princeko hirigintzaren ezaugarriak nagusia da hirigintza eredurik ez duela. Hiria kasu ezaguna da mundu osoan, kaleak osatzen duten kaosarengatik, trafikoarengatik, zabor tontorengatik... Port-au-Prince *mega-fabela* bat zen lurrikararen aurretik. Demografia jasangaitza duen hiria da gainera, gainpopulatua dago oso, eta ez du zerbitzu publikorik.

Lurrikara gertatu ostean zein egoeratan geratu da hiria?

Bonbardatua izan den hiria dirudi eta errefuxiatuentzako guneetan bizi da jende asko. Lau hilabeteren ostean hasi berri dira zenbait neurri hartzen, baina orain arte ez da neurririk hartu jendearen egoera aldatzeko.

Nazioarteko laguntzaren beharra aipatu izan da sarri, baina laguntza hori arrisku bihurtu daitekeela dioenik ere bada. Zein laguntza izan daiteke Haitirentzat erabilgarrien?

Gobernua erabat desagertu zen, ez zuten irratia baliatu herrialdeari aginduak emateko, hamabi egun pasa ziren lehendakariak herriari hitz egin zion arte

Esan beharra dago nazioarteko laguntza mundu osoan iritsi dela. Baina Estatu haitiarra existitzen ez denez, ez dago laguntza horren banatzea koordinatzeko gaitasunik. Laguntza hori iraunkor bihurtzen denean

dator arriskua, batez ere laguntza janariarena denean; bertako nekazaritza produkzioa suntsitzen baita. Herrialdea Karibeko Somalia bihurtu dela diote aditu batzuek, non etengabeko laguntza humanitarioak ekonomia desegin, fiskalizazioa oztopatu eta estatua ahultzen duen, herrialdearen kudeaketa

Gobernuz Kanpoko Erakundeen esku utziz. Egokiagoa litzake, adibidez, bertako produktak erostean oinarritzen den laguntza, orain Frantzia egiten ari den moduan. Era horretan, laguntza ekonomiaren suspertzaile ere bihurtzen da eta herrialdearen garapenerako bultzadaxoa da. Bestetik, asistentzia politikoaren arriskua aipatu beharra dago. Zenbait boterek herrialdearen ardura hartzen dute bere gain eta Haiti haien nahierara berreraikitze arriskua dago.

Egun iristen ari den laguntzak non bukatzen du?

Datu desberdinak dauzkagu iturrien arabera, baina esan daiteke gutxienez iristen den laguntzaren %60a berriz ere herrialde emaitza learengana bueltatzen dela. Dela garraioa, direla garesti kobratzen duten adituak, direla herrialde horrek produzitzen dituen materialak, dela segurtasuna... Laguntzaren %80a jatorrizko herrialdera bueltatzen dela dioten datuak ere badira. Datuetatik harago, kalean solidaritate kasu asko ikusi ahal izan ditut. Adibidez, Dominikar Errepublikako hainbat nekazari kamioietan igota etorri ziren kalte-tuei barazkiak eramatera. Bat-bateko laguntza sortzen zen edonon. Gizakiaren alderik ederrera sentitu ahal izan dut, baina denetik egon da. Azkenaldian *superstar* asko pasa da



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Irudietan, Antoninen filmeko fotogramak. "Lurrikararen hurrengo egunean atera nintzen zinemagileak egin behar duena egitera, testigantza ematera. Banekien hedabide erraldoietako irudiak izango zirela nagusi eta haiek betikoa erakutsiko zutela".



baita ere haurrekin argazkiak ateratzera; espektakuluaren gizartearen parte da, noski.

Esaldi ezaguna da krisi egoera guztiak aukera egoerak direla dioena. Zein dira gaur Haitik parez pare dituen aukerak?

Lehenik eta behin, herrialdea era koherenteagoan eraikitzeko aukera dugu eta horretarako beharrezkoa da lurralde antolaketa plana. Horrez gain, haitiarrak baztertzen dituen gizarte ereduarekin amaitzeko aukera dago, gizarte guztiz baztertzaila baita. Gutxi batzuek Haitin bizitzea lortzen dute, nik lortzen dut, baina egoera guztiz jasangaitza da. Nola bizi daiteke horrenbeste miseria inguruan izanda? Edo axolagabea zara edo egoera horretaz baliatzen den putrea, baina bestela ezinezkoa da. Herrialdea berreraiki beharra dago oinarri ekologiko, kultural eta sozial berrien gainean eta baliabide historiko eta artistikoetatik indarra hartuz. Lurrikararen ostean Haitiko herri osoa gizaki bakarra bailitzan mobilizatzeko aukera zuen Gobernuak eta ez zuen ezertxo ere egin. Jendea argibideen zain zegoen, egin behar zena egiteko prest.

Hedabideetan Haitiri buruz hitz egin denean biztanleriaren baldintza humanitarioak sarri aipatu dira, baina ezer gutxi esan da bertako egoera politikoari buruz. Nola deskribatuko zenuke?

Egoera politikoa behin-behinekoa da. Lurrikara Parlamentua berritzekotan zenean gerta-

tu zen eta ez da berritu, Justizian egitekoa zen erreforma ere ez da egin eta Errepublikako lehendakariak datorren urteko otsailean amaituko du agintaldia. Gainera, Parlamentuak Gobernuari hemezortzi hilabetez botere osoa onartzeko legea atera du aurrera. Horrez gain, erakunde bat sortu da herrialdearen berreraikitzea kudeatzeko. Erakundearen buru Bill Clinton eta Haitiko lehen ministroa izango dira.

Zu MAB (Haiti Eder Baten Aldeko Mugimendua) herritarren elkarteko buru zara. Zein proposamen egin duzue berreraikuntzarako?

Berreraikuntzaz arduratuko den erakunde baten sorrera eskatzen dugu, erakunde nazionala baina gobernuekiko independentea izango dena. Gure proposamenari entzungor egin diote, beste plan bat dute eta dena erabakita dagoela dirudi.

Zer da Haitik itxaropenerako eta berreraikuntzarako duen baliabiderik preziatuena?

Nik uste bere herria dela balorerik preziatuena, munduan eskulan merke gisa erabiltzen dutena eta hezi beharreko baliabide gisa ulertu beharko litzatekeena, duen hoberena eman dezan. Herri langilea da eta oso baketsua, sortzailez eta artistaz betea. Kontuan izan behar da, bestalde, biztanleriaren %50ak 20 urte baino gutxiago dituela eta, beraz, gazterian inbertitu beharra dago. Nik badut formula bat: %40 hezkuntzan, %40 ingurumenean eta %20 gainontzeko beharretarako. ■

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

KALE - BURKA :

Burukal (BN-s, R, S), (tanto) por cabeza : *(tant) par tête, à chacun.*

150 € + 150 € + 150 € + 150 €



Frantziako poliziak, joan zen ostegunean abiatutako polizia operazioan. JUAN HERRERO / EFE

Karrikan burka eramatea-
gatik 150 €ko amanda.

Frantziako Lege-Proiektuaren arabera

Inplikazioaz

Itsasoari begira geunden. Behin portu izandako portu batean. Elkarrekin solasten genuen bigarren edo hirugarren aldia izango zen. Elkarrizketa grabatuko nuela esan nion, atontzen ari ginen liburu baterako. Badakizu orain 30 urte langileen borroken erdian hementxe egon nintzela kontenedore horien artean korrika?, esan zidan Joaquim Jordá zinegileak. Ez nekiela esan nion, portu horretantxe solasteko egin genion gonbitea kasualitate hutsa zela. Orduan bota nion galdera. Eta erantzuna honakoa: “Sartu eta atereaz”, esan zidan, horrela lortu dut aurrera egitea, nire filmak kontzesiorik gabe ekoiztea. “Sartu eta ateratzea izan da nire indarra”, horixe esan zidan. Inplikazioan eta marjinatik lan eginez, marjinazioan geratu gabe.

DANI BLANCO



Isiari Rozas



Urkiza



Padron



Nora eza aukeratu duenak kanpoan dagoelako
sentsazioa izan dezake. Nora ezaren ertzean,
marjinean, sortzen da, ordea, desioa:
hor agertzen da zu eta bion artean
dagoen hori, aurretik ikusi ezin dena



Portu hiriaren izenak ez du axolarik, behin portu izandakoak hiri imajinarioa osa dezaketelako. Sartu eta atereaz. Zugan sartu eta zugandik atera. Bestearengan sartu eta bestearengandik atera. Zu eta bion artean dagoen ehuna, tartea, ez da gorputz hibrido bat, ezta gorputz estralurtar bat ere. Sartu eta ateratze ekintzaren artean dagoen gune hori bezalaxe, tarte bat dago zu eta bion artean. Ukitu daitekeen haragia, ehuna, hori da zu eta bion artean dagoena. Eta hori haztamutuz gero hasten gara zu eta bion artean dagoen mundua ikusten. Beste modu batean esanda, zu eta bion artean eraiki edo deuseztatu daitekeen mundua. Gorputza haragi bezala ulertzen bada, eta ez zentzu kristauan, baizik eta haragiaren dentsitatea, haragi opakoa, itzalak ere onartzen dituen. Haragia eta gure gorputza zeharkatzen duten intentsitateak, indarrak, energia, fluxuak. Zu gabe ez naiz neure bizkarra ikusteko gai ere, eta hori aintzat hartzen ez duenak barruan

dagoelako sentsazio liluragarria izango du, kanpoan badago ere.

Parte-hartzea kanpotik datorren deiaren zain dago, deialdia, aldarrikapena, hitzordua. “Etorkizuna saltzen digute”, bai, “orainean parte hartzeko aukera guztiak ezabatuz”. “Eta hor hasten da gure irribarrea,

erregimenak promesten digun etorkizunaren zati bat erosi nahiko dugulako” eta besteen txaloen artean irudietan ateratzeaz pozik gaudelako, Tunick amerikarraren argazkietan Donostiako hondartza batean bezalaxe. Inplikazioa,

sortzailea eta kritikoa, beste zerbait da. Inplikatua zaude gauzak afektatu egiten zaituztenean, maila kognitiboan eta baita sentsitiboan ere. Dena dela, afektuak ez dira emozioak edo sentimentalismoa. Gorputzaren ahalmenak dira. Inplikatua zaudenean, ez duzu deialdien zain egon beharrik, ez zaude iragana, etorkizuna edo oraina salgai jarriko duten zain zati bat eroste-

ko. Ez zaude argazkian ateratzeko zure irribarrea zuritzen. Zu eta bion artean dagoena ikusten denean, bestea jada ez dago guregandik kanpo. Eta alboan duzunak ez du zertan zure berdina izan beharrik.

Itzultzaile aparta zen Jordá. Askoren artean, Bufalino eta Braudillard gazteleratu zituen. Azken honen *América* liburuan: “Europar, kalea boladaka bizi da soilik, une historikoetan [...] Gainontzean jendea azkar doa, inor ez dabil kalez kale benetan –inor ez doa noraezean–”. Nora eza aukeratu duenak kanpoan dagoelako sentsazioa izan dezake. Nora ezaren ertzean, marjinean, sortzen da, ordea, desioa: hor agertzen da zu eta bion artean dagoen hori, aurretik ikusi ezin dena. Horrelakoetan Jordáren sartu eta atereaz datorkit. Nora ezean dagoenari zaila zaio irribarrea oparitzea itsaso urdineko argazkian ateratzeko. ■

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Funtzionario naizen hau

Azken garai honetan erabat harrituta utzi nau funtzionarioen kontrako jarrerak hainbat komunikabidean, eta ez leihatilan daudenen artean erantzun zakarrekoak ezagutu ez ditudalako, horien ondoan atseginak, pazientzia handikoak ere ezagutu baititut.

Harritu naute bi kontuk. Batetik funtzionario figura horrelako jendearekin erlazionatzeak, zakar erantzun, alfer fama... duen jendearekin. Eta bestetik krisi garaian behin-betiko lanpostua duten horien kontrako jarrerak. Behin-betiko lanpostua dutenez estutu daitezela!

Niri, berriz, funtzionarioei buruz hitz egitean nire postaria datorkit burura, belauna gaizki izanik ere laugarren pisuraino igotzeko prest liburuak dakartzanean; edo gure hiriko kaleetan lorategietatik zakur kakak kentzen aritu ohi diren lorazainak, ospitaletako hainbat ezagun... eta beste lagun asko, ni bezala unibertsitatean edo euskal kulturaren alde aritzen direnak; dagoen politikaria egonik hor lanean jarraitu duen jendea, beren ideiak bultzatzen, beren lana egiten, epe luzerako proiektuetan parte hartzen.

Edozein erakunde publikotan gaudenok dagoen jendearekin moldatu behar dugu, ezin dugu hau kendu eta hori ekarri. Ezin dugu gogoko



ALEX LARRETXI


dugun laguna edo egokia iruditzen zaiguna kontratatu besterik gabe, ezta bestelako ideiak edo jarrerak dituen bota. Eta, hain zuzen, horixe du alde erakunde publikoak, iraunkortasuna ematen dizula eta baita garrantasuna ere jendea kontratatzean. Baina alde ona duen bezala badu ere bestelakoa; nire lagun mediku bati pribatuan aritzen zen beste lankide batek esan zionean zein

ondo bizi ziren Osakidetzakoak orain krisi garai honetan nire lagunak erantzun zion moduan, gu beti bizi gara antzera, diru gutxiago dagoen garaian baina baita ekonomia primeran ibili eta beste batzuek soldatak ederki igo dituztenean ere. Castillo Suarezek zioen bezala: “Askori, *funtzionario* hitza aipatzean, burutara datorkie leihatila batean dagoen pertsona, eginkizun handiegirik ez duena eta ‘etor zaitez

bihar inprimakia beteta’ esaten duena modu zakarrean. Gutxiago jabetzen dira ebakuntza bat egin behar digutenean esku-ohetan eramaten gaituena ere funtzionarioa dela, herriko festetan oholtza muntatu eta desmuntatzen duena, bigarren hezkuntzako institutuko atezaina, haur eskolako zaintzaileak, parkeak ureztatzen dituzten lorezainak... Horiek ere funtzionarioak dira, baina ez dituzte soldata onak inondik ere, areago eremu pribatuarekin alderatuta”. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zorra egiteko abildadea balio denean, zorgabea, zorrik egin gabe bizi ahal izatea gabezia izango da, eskasia. Zorretan ez bizitzea irakatsi ziguten, eta ezinbestean egindakoak kitatu bitartean ez-bizitzen, zorrari aurpegia eman eta hura berdintzea baitzen bizitzea. Eta orain, zenbait eta handiagoa zorra orduan eta aberatsagoa zorduna. Gobernuek erakutsi dute bidea, zorpetze prozesua deitu eta gaizkile ustelen prozesioa arrakastatsuen pasarela bilakatu. Herriko Etxeek duten kudeaketa bikainaren neurgailu ia bakarra beren zorra da, aberats egiten dituen. Biztanlea zorpetuz

Zorpetzea

udaletxea aberastu. Kirol espektakulua dugu honen adibide argia, eta futbol elkarteak ikurak. Gure bizi pribatura eraman nahi izan dugu sistema. Ortuak orube eta orubeak auzo berri bilakatzea izan da kirol espekulatzailerak arrakastatsua zorpetzeko abildadea ahitu arte, eta beren zorrak kitatzen ikasi ez zutenek, auzoak eraikin eta orubeak zulo. Zorgabeek ordaindu beharko dute zordunen desmasia. Eta zordunei aurre eginez gero, intsolidarioen famaz bataiatuko dituzte erlijio berri honen sortzaileak, aurrerantzean ere eliza honetan kanonigo izaten jarraitu nahi dutenek, oro zorpetzeko abildadea dutenek. ■

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Benetako dei efektua

Azken hilabete hauetan gutxiago entzuten diren arren, bere garaian etorkinen etorrera eta dei efektuen inguruko eztabaidek bere momentua izan zuten komunikabideen zein iritzi publikoaren baitan. Atzerritartasunari buruzko legeak aldatu edota ez-ohiko erregularizazioak eman direnean, asko izan dira hauen bidez migrazio irregularraren sustapena emango zela defendatu dutenak. Datuei erreparatuta, inoiz baino atzerritar erregular gehiago dago Estatuan eta atzerritarren kopurua hazi baldin bada azken urte hauetan, igoera hau ez da izan lege aldaketa eman baino lehenagoko fluxuak baino handiagoak. Gizarte-politikak eta zerbitzuek dei efektua sorrarazten dutela entzun ohi dugu ere sarritan. Honen arabera, gizarte-estaldurek atzerritarren etorrera bultzatzen dezakete, hauen bidez lanik egin gabe ondo bizi ahal izateko. Kasu honetan ere, usteak ustel. Bestela, nola ulertu Euskal Erkidego Autonomoan (EAE) Estatuko atzerritarren ehuneko baxuenetarikoa ematea, gizarte-politiken garapena handienetarikoa denean? Are gehiago, kontuan izanik Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta –lehenengo Oinarrizko Errenta– etorkin irregularrak ere jaso dezaketela, behin urtebetetz erroldatuta egon ondoren. Zein da ba orduan,



INGO AZKONA

«
Egia da Ibarako piperren edota Gernikako babarrunen zaporea ezin hobe dela, baina nekazaritzak gurean duen garrantzi ekonomikoa zein laborala oso mugatua da
»

benetako dei efektua Amerikako Estatu Batuen atzetik Espainiako Estatu izateko etorkin atzerritar gehien jaso dituen lurraldea azken urteetan? Erantzuna argia da: fluxu hauek azaltzeko dei efektua, lan-merkatua da. Zehazki, lan-merkatuak dituen beharrak eta honetan bertakoek betetzen ez dituzten lanpostuak asetzeko beharrak.

Honen bidez, bai, ulertu ahal izango dugu, EAEn atzerritarren ehuneko 6,4koa izatea eta Valentzian, aldiz, ehuneko 17,3. Atzerritarrek betetzen dituzten “lan-hutsune” nagusiak, nekazaritzan, eraikuntzan, eta turismo eta ostalaritzan kokatzen dira. Egia da Ibarako piperren edota Gernikako babarrunen zaporea ezin hobe dela, baina nekazaritzak gurean duen garrantzi ekonomikoa zein laborala oso mugatua da. Araban akaso gehiago, patata eta mahatsa tarteko, horregatik hain zuzen ere lurralde historiko honetan atzerritarren kopurua ehuneko 8,8koa da. Era berean, gurean etxebizitzak egin diren arren, oraindik Marina d’Or eta horrelakorik ez dugu, eta Guggenheim dugun arren, oraindik gure Benidorm falta dugu. Halaber, bere egitura ekonomikoa dela-eta, Euskadi ez da batere erakargarria etorkin atzerritarrentzat, edo ez gutxienez Estatuko beste zona batzuk bezala. ■

TXANDAN

Andoni Mujika



Azken asteotan bizi izandako gertakari batzuek eragin zuzena izan dute nire pentsamendu antagoniko honetan. Honetara esanda, une batzuetan uste dezaket gizaki bakoitza ze ezberdina den eta, minutu batera, ze berdina. Denean oso urruti daudenak ere zein klonikoak diren ikusi dut garbi. Eta kurioa den gauza bat ere gertatu zait gogoeta honekin: gure espeziea hain berdina eta uniforme dela ikusi dudana momentuetan, ezaugarri miserablen batengatik izan da. Ezberdinak garelako ikusi dudanean, oster, arrazoi nobleren batengatik izan da. Egia esanda gainera, ez

Espezie bakarra

dut hain antagoniko antzematen nire barrua (eta *burrúa*) gaur. Espezie bakarra gara. Garbi xamar dago beraz, ingurua, eta nire barrua ere bai –azken hau aitortzea ondo kostatzen zaidan arren– miserabletxo ikusi ditudala. Mendekua jarriko dut horren adibide-tzat. Nire lagun estimatu batek dio, eta badaki, oso gurea dela, naturala nolabait esateko, beharrian humano hori: mendekurako grina. Baina txarrena ez da izan horrekin jabetzea. Txarrena izan da mendeku nahia janzteko eta arrazoiz betetzeko daukagun gaitasuna konprobatzea. Eskularru zuriko gezurrak. Eta jasook ere ze mundano garen eta diren. Ni, ni eta ni. ■

Iruña-Veleia (bibliografia bat)



LVAREZ, Amaia & MUÑOZ, Josune. “*Ian, edan, lo: euskal herriaren heteromatriarkatua auzitan*”, in Sareinak, feminismo literarioak [aldizkari digitala], 2021-VI-27: <http://www.eibar.org/blogak/sareinak/196>

AZKARATE, Miren. “Nire eroriko politikoa eta ML45 proiektu sekretua” in *Memoriak*. Alberdania & Susa Books, 2020.

BARANDIARAN, Alberto. “Denboraren materiala”, *Berria*, 2009ko martxoaren 29an, 38. orrialdea.

CAVALLI-SFORZA, Luigi Luca. *Genetica paleomoderna e sovranità retroattiva: un caso singolare nella Europa* [Genetika paleomodernoa eta burujabetza atzeraeraginezkoa: kasu bakan bat European]. Codice edizioni, 2012.

ELEXPURU, Juan Martin. *Eliseo, un Mártir de la Independencia* [Eliseo, Independentziaren Martiria] Temas de Hoy, 2016.

ETXENIKE, Pedro Miguel. “Project ML45: Dimensionality independence of the self-interaction density approximation to density functional theory” [ML45 proiektua: eta abar]. *American Physical Review*, 68, 5-48.

GIL, Eliseo. *Ez nuen gezurrik esan: Nire bidaia III. mendeko Veleiara*. Arabera, 2013. (J. M. Elxpuruk euskararatu)

GORROTXATEGI, Joaquín. “Amaya da asiera: gramática ahistórica vasca” [Amaia da hasiera: euskal gramatika ahistorikoa], *ASJU*, 41/2, 461-508.

GOTT, J. Richard. *Time Travel in Einstein's Universe: The physical possibilities of travel through Time* [Denbora-Bidaia Einsteinen Unibertsioan: Denboran zehar bidaiatzeko aukera fisikoak]. Houghton Mifflin Books, 2002.

ISPAHAN, Cecilia. *Five Destinations to the Past* [Iraganerako bost bidaldi]. Lonely Planet, 2019.



JOSU SANTESTEBAN

MARTINEZ DE LEZEA, Toti. *Izar Urdin foroan galdurik*. Erein, 2006. [Jatorrizko izenburua: *Isar Urdin, una forodisea*].

Memorial on Basque Political and Culinary Situation (paying special attention to ML45 project) [Euskal Herriko politika eta sukaldaritzaaren egoerari buruzko txostena (ML45 proiektuari bereziki kasu eginez)]. CIA –Central Intelligence Agency–, Directorate of Science & Technology.

Minutes of the CXX Nobel Prize Jury [CXX. Nobel Sarien Epaimahaiaren Agiria]. Nobel Foundation.

PORTER UCHA, Carmen. *Euskera, el idioma que vino del futuro* [Euskara, etorkizunetik heldutako hizkuntza]. EDAF, 2018.

RODRÍGUEZ AGIRRESAROBÉ, Kimetz. “ML45 proiekturik gabe Euskal Herria existitu izan ez litzatekeelako demostrazio antropon-filosofikoa, soken teoriar eta *Lost* telesailan oinarritua”. Tesi zuzendaria: Alberto Ruiz Biasterikoa. Euskal Herriko Unibertsitatea. Logika eta zientziaren filosofia saila.


UDERZO, A. & GIL, E. *Astérix chez les basques* [Asterix euskaldunen artean] Éditions Albert René, 2010.

WAKESTON, Kate. “Surprise Quintuple Nobel Prize goes to Basque Country” [Ustekabeko Nobel sari boskoitza Euskal Herrira doa]. *The New York Times Online*. 2017-10-29. <http://www.nytimes.com/2017/10/29/world/surpri-senobel.html>

X3345-XT-23 to X3345-XT-34 documents [agiriak]. Archivio segreto vaticano.

ZIZEK, Slavoj. *Living in the End Times* [Denboraren amaieran bizi] Verso, 2010.

ZIZEK, Slavoj & SAVATER, Fernando. “First as Fake, Then as Faith: The Basque Genesis of Worldwide Apocalypse”. [Lehendabizian itxuraz, ondorengoan fedez: Mundu osoko apokalipsiaren euskal genesis], *Actas del VIII Congreso Internacional Navarra Gourmet-Vive La Verdura*, Tuteria, 2014. ■



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi

Zure besarkadari jarriak



XDZ

I

Haizea dabil atean,
zakurra zaunka katean.
Egin zaidazu toki txiki bat
zure besoen artean.

II

Bi besoequin borobil,
bi besoequin oro bil.
Zure sehaskan nire burua
ahaztu nahiean nabil.

III

Dardar naiz, baina bi esku...
Ingura nazazu estu;
nire gorputzak haize bortitzen
batere beldurrik ez du.

IV

Amapola bat larrean,
belarria bularrean:
bihotza, gaur zu entzun nahi zaitut
mundua entzun beharrean.

V

Petaloak tximeleta,
lilia azal gordeka.
Biluzik nago, jantzi nazazu
hemen hotzak nago eta.

VI

Ibaiak zubia hil du,
urtu naiz eta amildu.
Askatu eta utzi erortzen,
utzi joaten, baina bildu.

VII

Lore urdin bat negarrez
hasi da ilunabarrez:
marea gora dator, maitea,
bete gaitzala aparrez.

VIII

Badatoz haize hegoak,
zure hatsaren beroak.
Utzi uzkurtzen eta laztandu
itzazu nire hegoak.


IX

Haizea naiz eta ura.
Besarkada lurrundu da.
Orain aske naiz, zuri eskerrak
berriz sortu naiz mundura.

X

Haizea dabil atean,
zakurra zaunka katean.
Nahi al zenuke toki txiki bat
nire besoen artean?

DOINUA: "Oihaneke pagoak blai".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Literaturia II: mila irakurle eta hamaika gehiago

“Kriston martxa dabil!” gedar egiteko gogoia ematen du aspaldion literaturaren bueltan sortu den saltsaz pentsatze hutsak. Aurten bigarren edizioa du “Mila irakurle eta hamaika gehiago” lelopean antolatutako Literaturia ekimenak. Literaturia euskal literaturaren plaza da, literaturaz gozatzen duen ororen bilgunea. Euskarazko argitalpenak dakartzaten argitaletxeen azoka, labetik atera berri diren nobedadeen berri-ematea, idazleei egindako elkarrizketak, poesia errezitaldiak, olerki musikatuak, haur eta gazteentzako antzezlanak... biltzen ditu Literaturiak, orokorrean letrei loturiko ekitaldiak, alegia.

MIREN IBARLUZEA



ANTOLATZAILEEN ESANETAN, “literaturaz ari garenean sarri aipatzen da irakurlea, baina ezer gutxi dakigu euskal irakurlegoaz. Aurten Euskal Herri osoko irakurleek aukera izango dute elkarrekin kezak eta esperientziak partekatzeko, eta gero haiek izango dira liburuak kaleratu berri dituzten idazleei aurkezpenetan galderak egingo dizkietenak”.

Aurten 111 Akademiako ordezkarien laguntza izan dute Literatura Eskolako kideek eta Larrabetzuko kultur eragileek Literaturia antolatzeko. Irakurleek osatzen dute 111 akademia, hain zuzen ere *Beterriko liburua* sariko irabazlea aukeratzeko epaimahaikide gisa aritzen diren irakurleek. Euskal Herrian hanhemen ditugun irakurle klubetako kideak dira irakurle horietako asko eta asko, eta ohituta daude lantzean liburu baten inguruan gogoe-ta eginda euren artean zein idazlearekin solas egiten. 111 Akademiako kideak, Literatura Eskolakoak legetxe, irakurle arruntak dira, literaturaz gozatzen dutenak, artikulu hau irakurtzen ari zaren hori, zu bezalakoak. Batzuk izango dira kritikariak, irakasleak, dokortuak... baina euzeren gainetik irakurleak dira denak, literaturzaleak.

Unai Iturriaga izan da aurtengo kartela egiteko ardura hartu duena –lerroon ondoko irudia da–. “Literaturaren uria” islatu gura izan du, bai eta lortu ere. “Literaturaren urian” obra, idazle eta irakurle guztiek dute euren lekua. Argi geratu da hori afixan, baita



WWW.LARRABETZUTIK.ORG /CC-BY-NC



WWW.LARRABETZUTIK.ORG /CC-BY-NC

2009ko Literaturiako argazkiak dira goikoak. Liburu azoka, hitzaldiak, errezitalak, musika... denetarik izan zen aurreneko ekitaldian. Aurten, antolatzaileek jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman nahi dute.

kartelaren inguruan Literatura Eskolako kideek izandako iritzi trukean ere. Anekdotan moduan kontatzea merezi baitu, kartelaren diseinua bukatuta Literatura Eskolako kideen zerrendara bidali zela, eta emailaz iritzi-trukea izan zutela, emakumeen libururik ba ote zen bertan, kuotak nola ezarri behar ote diren, genero guztiak islatuta geratzen ote ziren, itzulpenik bazen bertan... inor kanpogan ez uzteko ahalegin argi askoa!

Egitaraua ere kartela bezain anitza da

Literatura euskaraz plazaratzen duten argitaletxeek euren erakusleihoak herriko plazan egongo den karpapean izango dituzte, eta hara bertaratzen den edonork esku-eskura izango ditu nobedadeak zein bestelako literatura kapritxoak.

Ekainaren 4ean hasiko dira emanaldiak. 20:00etan harrera ekitaldia izango da, eta ostean, 21:00etan, *Haragizkoa* emanaldia eskainiko dute Omar Nabarrok (Edorta Jimenez, alegia) eta Rafa Ruedak. Bukatzeko, 22:00etan, Joseba Tapiak disko berria aurkeztuko du plazan.

Ekainaren 4, 5 eta 6rako antolatu duten egitarauaz gain, aurretik beste batzuk ere izan dira aurten: Basaurin, barbarako, maiatzaren 6an Jose Luis Otamendi eta Mitxel Sarasketa jardun ziren kartzelako literaturaz

Ekainaren 5ean, berriz, goizez hasiko dira literaturzaleak harrapatzeko prestaturikoak. Ohiko Literatura Eskoletako batez goatzeko aukera izango du bertaratzen den edonork, *Irakurle Taldeak Euskal Herrian* mahaingurua baita ekaineko saioa (Literatura Eskolako saioak hilean behin izaten dira). Durangoko, Igorreko, Iurretako, Markina-Xemeingo, Meatzaldeko, Santutxuko, Basauriko, Amezetako, Donostiako, Legazpiko, Larrabetzuko eta Zumarragako irakurle taldeetako ordezkariak hartuko dute parte. Eguerdian hasiko dira liburuen aurkezpenak, 14:00ak arteko tartean. Bitartean, Larrabetzuko umeen antzezpina ere izango da. Bazkalostean Bertso Trama Literarioaren txanda iritsiko da. Josu Goikoetxea gai-jartzailearen gidaritzapean arituko dira Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Xabier Amuriza. Arrastegiko 18:00etan gaztetxoentzako antzerkia izango da Hori Bain: Dejabu taldearen *Azken portu*, hain zuzen ere. *Eskuen sustraiak* ikuskizuna etorriko da gero, Oier Guillanen poesia liburuan oinarrituta. Gaudera, 22:30etan Gose taldearen kontzertua izango da Hori Bain, eta bukatzeko *Bi hitz & Bits*. Irudiak eta soinuak. Bideoak eta musika.

Ekainaren 6ari ere mahai-inguru batekin emango zaio hasiera; 10:00etan hasiko baita Koldo Izagirre, Angel Erro eta Petra Elserren gogoetaldia, Miren Ibarluzearen gidaritzapean. *Euskarara itzultako liburuak dira euskarazko literatura onena?* itauna baliatu dute antolatzaileek aipatu hiru idazle-itzultzaileak xaxatzeko. Aurreko egunean legetxe, 12:00etatik 14:00etara bitartean liburuen aurkezpenak izango dira. Bazkalostean, helduentzako eta *Karmele?* antzerkia izango da Hori Bain. Literaturiari poesia errezitaldiek eman-gio diote akabera 19:30etan, Hori Bain bertan,

Karmele Igartua, Xabier Montoia, Igor Estankona eta Paddy Rekalde irakurtzen entzuteko parada ezinobeaz.

Liburuen aurkezpenetan, besteak beste, ondoko idazleen parte-hartzea izango da Literaturian: Eider Rodriguez, Lander Garro, Miren Agur Meabe, Kepa Altonaga, Xabier Amuriza, Iban Zaldua, Karlos Linazasoro, Yurre Ugarte, Omar Nabarro, Xabier Mendi-guren Elizegi, Agurtzane Ortiz, Fernando Morillo, Enrique Urrutia Capeau eta Yolanda Arrieta.

Egitarau horrezaz gain, umeentzako Literaturiatxuak beste hainbat ekitalditxu burutuko ditu eta Larrabetzuko kale eta taulatuetan ez eze, sarean ere izango dugu ekimena. Aste-buruko emanaldiak Internet bidez zabalduko dira. Horrez gainera, Facebooken talde edo *group* bat sorturik dute antolatzaileek (<http://ttiki.com/13431>) eta *event* (ekitaldi) bat deiturik dute bertan. Bestalde, Twitter bidez mezuak zabaltzen eta batzen ari dira, Twitteraturia mezu bilduma jarri dutelarik euren blogeko eskumako zutabearen (www.larrabetzu.org/literaturia). “Hitz berriak asmatu, eta berbak elkarren ostean jarritz fikzio sinesgarria egitean datza literatura, ezta? Horretan saiatzen ari gara gu ere” diote.

Asteburuan izango diren ekitaldiez gainera, aurretik beste batzuk ere bat zaizkio ekimenari, kasurako apirilaren 28an Basauriko Euskarabila elkartearen egoitzan izandako solasaldia eta Larrabetzuko Literaturaz Berbetan irakurleen biltokian maiatzaren 6an izandakoa, non kartzelako literaturaz aritu ziren Jose Luis Otamendi eta Mixel Sarasqueta. Otamendik Jokin Urainen *Ez dago etxean* liburua aurkeztu zuen bertan.

Literaturaren inguruan “kriston martxa” dabilela esanez hasi dugu artikulu hau, ezen Literaturiaz gain badira han-hemen literaturaren inguruan sorturiko jaialdiak. Aurten, Zarautzen Azken Portuko III. Literatura

WWW.LARRABETZUTIK.ORG /CC-BY-NC



Aurten ere herri bazkariak izango dira Larrabetzun asteburuan. Gurbide elkarteak eta Txinpasmendi guraso elkarteak antolatuko dituzte. Larrabetzuko produktuekin prestatuak, eskolako jantoki autogestionatua bultzatzeko.

**Ez da Larrabetzukoa bakarrik:
Zarautzen III. Literatura Astea
antolatu dute, Erreterian
X. Poesia Astea; eta Ean,
Senperen, Gernikan...
literaturaren inguruan
“kriston martxa dabil”**

Astea izan zuten; Erreterian, X. Poesiaren Astea izan dute aurtengoa; uztailen atzera ere badatoz Eako Poesia Egunak; ezin ahan-tzi, berebat, urte osoan han hemen ditugun Hatsaren Poesia eguna (Senpere), Gernikako Poesiaren Astea, irakurle taldeek antolatutako ekitaldiak zein Literatura Eskolaren beraren saioak... beste batzuen artean.

Horietan guztietan parte har dezazun, eta Literaturian izan zaitezen, gonbidapentzat har itzazu lerrook, irakurle. ■

gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

Arte eszenikoak

ACT jaialdia

Apustu arriskutsuak Bilbo Handiko agertokietan

Aurten, zazpigarren urtez eta Bizkaiko Antzerki Ikastegiaren (BAI) eskutik, Bilbo Handia arte eszeniko berrientzako topagune eta erakusleihu bihurtuko da, ekainaren 1etik 5era. Dantzariak, bideogileak, antzezleak eta DJak, besteak beste, mundu osoan arteak dakartzan proposamen sortaileen mezulari izango dira. ACT da, joera eszeniko berrietara zabalik dagoen jaialdia.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

ORAIN DELA ZAZPI URTE, Barakaldon eta Bilbon egoitza duen Bizkaiko Antzerki Ikastegiak, lurraldearen indar sortzaile artistikoa azkartzeko asmoz, ACT, Nazioarteko Sortzaile Berrien Antzerkialdia erditu zuen. Antzokiak eta aretoak aldatu badira ere, artista berrientzat, adituentzat eta ikusleentzat ikur izateko nahiarekin jarraitzen du ACTek. Hezkuntza, lan eszeniko berriak eta nazioarteko sortze harremanak sustatzea eta zabaltzea dauka helburu, horretarako emanaldiak, erakusketak, solasaldiak, ikastaroak eta lehiaketak baliatuz.

Lau atal

ACTek lau ataleko egitaraua dakarkigu: Erakusketa eta lehiaketa, Danzine, ikastaroak eta bazkalosteko nahiz gaueko ekitaldiak. Oro har, nazioartean garrantzi handia duten lanak izango ditugu ikusgai. Eta ospe hori ez ezik, proposamenen izaerak ere inportantzia handia du artistak hautatzerakoan: ACT jaialdiak lehentasuna ematen die ibilbidearen hasieran dauden sortzaileei, baita lengoia propioen bila dabiltzan artistei eta lanei ere.

Aurtengo egitarauak eskainiko dizkigu, besteak beste, antzerki eskolen sei antzezlan, lehiaketan aurkeztuko diren hamazazpi obra labur, beste hamalau bideo –batzuk lehiaketan ere parte hartuko dute– eta bideo-dantza profesionalaren ordu biko emanaldiak. Aipa-

tzekoa da, azken atal horretan, Jordi Cortes dantzari eta koreografo katalanak dakarren V.I.T.R.I.O.L. Hamabost herritako –Korea,

Alemania, Katalunia, Herbehereak, Australia, Ingalaterra, Kosovo, Islandia, Belgika, AEB...– 40 minutu baino gutxiagoko iraupeneko 40 lan izango dira ikusgai.

Antzezlan laburrak eta bideo-dantza ez ezik, aurten, BAIko profesionalak garatutako hiru ikuskizunekin gozatzeko aukera ere edukiko dugu. Hirurak atzerriko beste hainbat eskolekin izandako elkarlanaren emaitza dira: bata, Amsterdameko antzerki musikal eskolarekin; beste bat, Australiako WAAPA antzerki Unibertsitatearekin; eta, azkena, Erresuma Batuko Leedsko Performing Arts Unibertsitatearekin ekoiztua da.

Ekainaren 1ean, asteartean, hasierako ekitaldiak eszenatoki bikoitza izango du: batetik, arratsaldeko zazpitan Barakaldo Antzokian antzerkia oinarri izango duena;

iazko irabazleek parte hartuko dute ekitaldi horretan; ordu bi geroago berriz, Bilboko Kafe Antzokian, Meritxell Checa Esteban kataluniarrak (lehenengo ACT jaialdiko irabazlea) aurkeztuko duen Last Picture ikuskizuna nabarmentzekoa da; gau giroari lotuta dago bigarren aurkezpen hori.

Arriskuan datza egungo sormenaren giltza; arriskuan eta ikerketan. Biak sendotzera



ACT jaialdia iragartzeko goiko kartela erabili dute aurten. Zazpigarren edizioa du arte eszeniko berritzaileen jaialdiak.

zuzenduta dago ACT Lehiaketa. Alde batetik, sarien eta diru-laguntzen bidez hainbat proposamen berri sustatu nahi ditu jaialdiak. Bestetik, jaialdian irabazle izango diren lanek bermatuta dute Bizkaikoaren antzeko beste hainbat jaialditan parte hartzea, Europa osoan: ACT festibala IYME (International Young Maker's Exchange) sarean dago. Dagoeneko sei urte ditu sare horrek, eta arlo profesionalen sarterik ez duten lanak nazioarteko testuinguruan ezagutaraztea nahi du, elkartrukearen bidez. Dena dela, komeni da BAIren webguneak (www.bai-bai.net) esaten duena gogoratzea: "Jaialdia ez da soilik lehiaketa bat, non lanek diru-sari bat, edo beste jaialdi batzuetan antzezteko aukera lortzea duten. Topagunea ere bada, erakusleho, bizi-penen trukerako esparru eta harreman profesionalen sustatzaile".

Hainbat sari banatzen ditu ACT jaialdiak, eta urtero gehitzen dute baten bat. Aurten, ACT-Arriagak 3.000 euro emango dizkio zuzeneko lan labur onenari; gainera, sari horri esker hurrengo urtean besteak beste, Bilboko Arriaga-BBK aretoan aurkeztu ahaliko dute lan irabazlea. Bideo-dantza arloko lan onenarentzat dira Danzine Sariaren 1.500 euroak. Arestian esan dugunez, bideo-dantza lehiaketa eta erakustaldia La Fundición aretoan izango dira, ekainaren 5ean, larunbata, goizeko 11etan. Aurreko urteotan Danzine saria irabazi duten artisten lanak ere bertan izango dira. Eta itxiera ekitaldira joango direnek aukeratutako lanik onena ikusiko dute.

Egunero, arratsaldeko laueta ACTmosfera izeneko bazkalosteko solasaldiak zabalik egongo dira. Antolatzaileetako batek mode-

Zortzi areto jaialdiaren zerbitzura

Urte osoan, Bilbo Handiko eskaintza kulturalaren zati garrantzitsua kudeatzen duten aretoak ditu eszenatoki ACTek: Bilborock, Kafe Antzokia, Arriaga-BBK aretoa, Bai Bilbo eta La Fundición (Bilbo); Barakaldo Antzokia eta San Bizenteko Clara Campoamor Kultur Etxea (Barakaldo); Social Antzokia (Basauri). Barakaldo Antzokiak eskola magistralak hartuko ditu. Kafe Antzokian eta Bilborocken, aldiz, lan laburrak izango dira ikusgai; eta Deustuko La Fundición aretoa bideo-dantzaren (Danzine) egoitza izango da.

ratuko ditu saio horiek, eta jaialdian parte hartuko duten taldeak aurkeztuko ditu, dakartzaten lanen gorabeherak azaltzeko abagunea eskainiz. Ekitaldi honek elkarlanerako eta eztabaida artistikorako gunea izan nahi du, ideiak, kolaborazioak eta iritziak zabaltzeko bilgunea.

Eta Kafe Antzokian puntako DJen eskutik ACTnight ekimena prestatu dute, gaueko festa. Aurtengo gonbidatuak Jorge Laststar, Red Rhino, Alabama Moorning, The Sbitz eta Araña eta DJ Pan Z dira.



Lu Carmella dantza bikotea goiko irudian. Kafe Antzokian ikusgai izango diren obra laburretako bat beraia izango da.

React, Jaialdiko hoberena

Ekainaren 7tik 13ra berriz, Basauriko Social Antzokiak hartuko du jaialdiko unerik onenak biltzen dituen ReACT. Danzineko irabazlea ez ezik, erakustaldiko eta lehiaketako egitarau osoa ikusi ahal izango da, egitarau pedagogikoa ahaztu barik. ■

Ekainak 5 - OÑATI

XII. EUSKAL SELEKZIOAREN EGUNA

EGITARAUA:

- * 10:30: Ikurrinaren igoera, txalaparta, dantzariak eta bertsolariak.
- * Jarraian Ekitaldia: UDALA eta ESAIten hitzaldia
- * 11:30: Herri lasterketa gaztetxoentzat
- * 12:30: Euskal Jokoa gaztetxoentzat
- * 14:00: Bazkari herrikoa
- * 16:30: Parrotx pailasaren bihurrikeriak eta muXuak
- * 16:30: Debarroko pilota txapelketaren finalak
- * 18:45: I. Euskal Herriko atletismo txapelketa irekia (10.000 m)
- * 20:00: ERROMERIA TRIKIZIO TALDEAREKIN

Txozna, taloak, euskal selekzioaren materiala salgai eta euskal giroa.

Liburuak

KRITIKA

Laranja azalaren negarra.

Irati Jimenez.

Kutxa.

46 orrialde. 7 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Heriotzak bizitza dakarrelako

EZ DA GAURKOA narrazioa, izan ere, Donostia Hiria Literatur Saria irabazi baitzuen 2008an, baina ez da horregatik zahartu *Laranja azalaren negarra*. Liburu hau kontura ekarri dut, hain zuen ere, ez diodalako irakurri zaharra Jon Kortazar idazle eta literatur kritikariari, euskal literaturen kanona aldatzen ari dela. Erabat gizondua ibili dena periferiak iradokitzen hasia dela, eta horren lekukotzat irakurlea jartzen zuen. Azkeneko hilabete hauetan liburu irakurrienen artean hiru emakume idazle aipatzen zituen: Irati Jimenez bera, Karnele Jaio eta Uxue Alberdi.

Hiru egileak pertsonaia femeninoetan babestu dira azken hiru eleberrietan amatasunaz, heriotzaz, bakardadeaz, genero indarkeriaz... beste gai askoren artean mintzatzeko. *Laranja azalaren negarra* gai horiek guztiak berekin ditu, baina bi ardatz tematiko ditu batik bat. Batetik, emakumeen konstelazioa edota emakumeen arteko sarea begi bistan uzten du. "Bera ama zen, eta amona eta amonaren ama eta amaren iloba". Emakumeen mundua ikusgarri bilakatu ez ezik, aita absentearen papera azpimarratzen du protagonistak: "Aita beti lanean".

Denbora tartekatua darabil Jimenezek, sistole eta diastolearen erritmoa narrazio osoan barreiatuz. Umea, amonaren gonapean, etxezuloan hazia, hiltzen ikusiko dugu. Amonaren heriotzak eramango du betirako haurra, neska gaztea narratzailea jaiotzeko, heriotzak bizitza dakarrelako. Heriotza desmitifikatzeaz gain, bada beste gai sakonik ere Jimenezek ipuin motz honetan, loditasuna, familiaren porrota edota dibortzioak. "Dibortziazutako gurasoen umea naiz".

Hautzarotik nerabazarora egiten duen bidaia honetan Jimenezek poesia du bidaide. Jon Kortazarrek elkarriketa berean aipatzen zuen, beste berrikuntzetako bat, genero nahasketan legokeela eta ipuin honek ere badu zertxobait hortik: ipuinetik, eleberritik, kantatik eta batez ere badu poesiatic. Bukaera korapiloa askatzeko orduan, galdera erretorikoak besterik ez baitira geratzen. "Nora doaz umeak, pertsonak hazi eta ahazten dituztenean?". Nora hildakoak, galdutako kiloak, garbitutako zikinkeria guztia. Horiek emakumeen eginkizunak, ikusezin eta neurtezin direnak. Baina batez ere maitasun liburua da *Laranja azalaren negarra*, haurrak amonari aitortzen diona, inkondizionala. "Eta orduan pentsatu zuen amona zela benetan umea maite zuen bakarra". Ume lodia maite zuena. Gizartearen arauetatik at geratzen den loditasuna, oskolik gabe, laranja azalik gabe, bere horretan haurra zen bezalakoxe maite zuena. ■

'Zaldi Eroa'-ren zintarik onenak

Egunero *Berria* egunkarian publikatzen dituen zintekin ezagun egin da Patxi Huarte *Zaldi Eroa* euskaldunon artean. Haren umoreari esker irribarre batekin hasten dute eguna askok. Baina egunkariak gauarekin batera birziklatzera botatzen direnez, eta Huarteren lanak bigarren irakurria merezi duenez, Elkar argitaletxeak *De Rerum Natura* izeneko zinten antologia jarri zuen dendetan duela bost urte. Aurreneko bilduma hark izandako arrakastak bultzatuta, bigarren



De Rerum Natura 3.
P. Huarte Zaldi Eroa.

Elkar.

173 orrialde.

18,20 euro.

antologia bat ere prestatu zuten 2007an. Eta orain hirugarrena eman dute argitara. Mitxeleena XVI.ak eta

The Organizationeko kideek bidaide berriak dituzte: Napoleon Lopez, besteak beste. ■

Arkitekturari buruzko artikulua 'Ondare'-n

Eusko Ikaskuntzak *Ondare* aldizkarian arte plastiko eta monumentalei eskaintzen die arreta berezia. Azal koloretsuz aurkeztu dute 27. zenbakia; mamian berriz, honakoak aurkituko ditu irakurleak: Sergio Ciordiak Hego Euskal Herriko parkeei buruz idatzitako artikulua; Ana Leisek eta Iñaki Madariagak San Agustinen ordenaren arkitekturaz idatzi dutena; egile berberen eskutik Bizkaiko udaletxe neoklasikoei buruzko ikerketa; Francisco Javier Muñozek AC/GATEPAC taldeak gerra aurreko Euskal Herrian bultzatu zuen arkitektura berriari buruzko testua; edota Maria Josefa Tarifak Zigako, Lekarozko eta Gartzaingo Berpizkunde garaiko elizez idatzitakoa, besteak beste. ■



Ondare 27.

Batzuen artean.


Eusko Ikaskuntza.

500 orrialde.

14 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gabeko kalapitxiak.
Piztiak.
Autoekoizpena.
Iraupena: 59'44".
10 euro.

Argitik hurbil, baina itzalekin jolastuz

PIZTIAK Ondarroako talde beteteranoa da, baina antza denbora luzez itsasoari begira egoten dena. Isilune baten ostean, beraien herriko pasarte eta bizi-penak batzen dituen disko pertsonala kaleratu dute, iraganeko rock gitarrero-tik apur bat aldentzen dena. Poperoa-goa da, pausatuagoa ere bai askotan, baina gitarrak zelatan daude eta batzutan lagun dituzten Ama Say eta 1990eko hamarkadako izpiritua gogora ekartzen dituzte. Baita Violent Femmes eta Vel-

vet Underground bera ere. Hala ere, barrenak askatasunez hustu dituzte gugandik urrundu eta argirantz axolagabeki hurbilduz. Kanta luzeak dira gehienak, garapena eta esperimentazioa gus-tukoak dituztenak; eta ondarrutarrez gozatutako istorioak oso hurbilekoak dira. Ez galdu aukera zure herrira eramateko, itsas-korronteak direla-eta, kontzertuak emateko puntuan daude-eta.

www.myspace.com/piztiak

Txomin Uribe - Piztiak

«Disko honetan ez genuen irizpiderik jarri; bakoitzak nahi zuena egin zuen»

Orain dela gutxi musikari bizkaitar batek aitortu zidan oso zaila egiten zitzaioela euskalkian idatzi eta abes-tea. Zuentzat hala da naturalena edo behartu egiten duzue zuen burua?

Berezko kontua da. Batzuetan euskara batuan idazten ditugu, baina disko honetan batez ere ondarrutarra asko agertzen da, abestiak Ondarroako gauzez, irudiez eta istorioez direlako; hala atera dira.

Disko honek askatasun sentsazio handia eragin dit. Hala izan da? "Ereitzen" zaizuen egin duzue?

Esan diguten gauza politenetako bat da, eta baita disko honen gakoa ere. Berau prestatzen hastean ez genuen inolako irizpiderik jarri; bakoitzak nahi zuena egin zuen beldur guztiak alde batera utzita. Eta zerbaít bada, hori da gaueko kalapi-



txien askatasuna, nahiz eta jakin bonbillan erreko direla.

Pettik oso parte ederrak kantatu ditu. Argi zenuten bera izan behar zela?

Hasieratik. Gure ahotsen aurrean beste ahots grabe eta rockero bat sartu beharra zegoela konturatu ginen eta zein hobeto Petti mundu mundialeko abeslari onena baino.

Zer puntutan dago orain Piztiak?

Oso gustura gaude egindako lanarekin; seguruenik orain arte egin

dugun disko onena da. Orain Josu Aranbarri baxu jotzaileak egindako pintura, argazki eta bideo erakusketarekin gabilta. Aurrerago, *Lo* abestiaren bideoa eta *Gabeko kalapitxiak*en film laburra egin behar du Josu Eizagirrek.

Zerk kentzen dizue *Loa*?

Gehienbat ez dagoela musika taldeen jarraitzaile ezta entzule askorik; interesa galdu dela kontzertuetara joateko, diskoak erosteko... Kultura hori galtzen ari da eta guretzat guztia izan da, bizitzeko modu bat.

Natura ia etengabe agertzen da zuen hitzetan, izenburuan... Ez al genituen ba rocka eta rockeroak urbanitekin lotzen?

Gu ondarrutarra izanik beste era batera ezagutu dugu rocka. Ondarroako gau zoro batera etorri baino ez duzu... ■

Ezpalak

JON TORNER

Tom Sharpe eta 'Forges', Bilboko Umorezko Literaturaren Astean



BILBOREN IRRIA Umorezko Literaturaren eta Umore Grafikoaren jaialdia egingo dute Bilbon, irailaren 22tik 26ra. Bost egunetan, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburu azoka, erakusketak eta ikuskizunak izango dira. Lehenengo edizio honetan, Tom Sharpe idazle ingelesa saritu eta Antonio Fraguas de Pablo 'Forges' umorezko marrazkilari espainiarra omenduko dute.

Jai herrikoien alde



WWW.IZANPIRATA.INFO

EUSKAL HERRIKO jai batzordeek jai herrikoien sarea sortzeko lehen urratsa eman dute. *Bultzatu* izeneko manifestua sinatu dute dozenaka kultur eragile eta elkartek. Jai herrikoiak auzo, herri eta hirietako elkarbizitzaren parte direla aldarrikatu dute. Euren iritziz jai eredu horrek "erasoak", "debekuak" eta "murrizketak" jasaten ditu eta hori salatuzko "jaiei planto egitea" ere ez dute baztertu. *Bultzatu* manifestua eta bildutako atxikimenduak: www.bilbokokonpartsak.com.

100x100 komiki izeneko erakusketa izango da ikusgai abuztuaren 20ra bitartean Bilboko Alondegan. 50 komikigilek, beste hainbeste autore ezagunek egindako marrazkien bertsio bereziak bildu dituzte erakusketa horretan. Bi marrazki egin ditu bakoitzak. Tartean dira hainbat komikigile euskaldun: Raquel Alzatek Lewis Trondheimen marrazkien bertsioak egin ditu, Santi Oruek Francisco Ibañezenak, Javier Isusik Milo Manararenak, Ernesto Murillok Frank Robbinsenak eta Mikel Valverdek Jacques Tardirenak.

Surfin Kaos

Donostiako rock & roll taldeak *Goi- zalde surrealista*k laugarren lana kaleratu du Brian's Records etxearekin. Diskoa Egia auzoko Le Bukowskin grabatu dute. Bestalde, kalean da Show Business talde oñatiarraren lan berria ere: *Pozindutako hitzak* (Wilboard Records).



MAKOKI GROUPS (WWW.FLICKR.COM)

DFeria Donostiako antzerki eta dantza jaialdia ekainaren 22tik 24ra egingo da. Iaz baino zortzi ikuskizun gutxiago eta aurrekontu erdia izango ditu ekimenak. Guztira, hamabost lan eskainiko dituzte, denak euskaldunek edo Euskal Herrian eginak, hala nola, *Magnifique*, *Intxaur-bauskailua*, *Loti ederra* eta *La mujer justa* dantza obrak, eta *Kapzuloa*, *Otto*, *Aitarekin bidaian*, *Arrastoa* eta *Goibel* antzezlanak. Egitarau osoa: www.antzerki.com.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

euskarazko

web guneei

dirulaguntzak

BALDINTZAK

Publiko zabalari zuzendua behar du web guneak • Zergak Tolosan pagatzea • Edukiak oso-osorik euskaraz (ere) izatea

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA
2010eko **ekainak 30**

TOLOSAKO UDALA

INFORMAZIO GEHIAGO
943 69 74 53 edota
euskara@tolosakoudala.net

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Hau onartzen baduzu, zure haurrek ordainduko dute

If you tolerate this your children will be next.

Manic Street Preachers (*This is my truth tell me yours* diskotik).
Epic (1998).

KINTILIANOK zioenez “*suaviter in modo, fortiter in re*” da arrakasta lortzeko formula. Maneretan bigun, helburuetan gogor. Manic Street Preachers taldea deskribatzeko ere egokia da esaldia. Pop talde galestarra da Habanako Karl Marx teatroan jo zuen lehen *mainstream* banda mendebaldarra, doinueta lasaia, hitzetan engaiatua. Oso ibilbide irregularrekoa, nire gusturako, baina noizean behin perla batzuk utzi dituen.

ASHLEY R. GOOD / CC-BY



James Dean Bradfield,
taldeko abeslaria.

1998ko *This is my truth tell me yours* da horietako bat. Diskoa aurkezteko erabili zuten kanta, *If you tolerate this your children will be next*, 36ko Gerraz ari da. George Orwellen *Kataluniari omenaldia* eta The Clashen *Spanish bombs* inspirazio iturri, krimen historikoak memoriatik zein erraz ezabatzen ditugun salatzen du: “Balak zure burmuinean gaur/ baina berriz dena ahaztuko dugu/ boligrafotik papereratutako monumentuek/ errairik

gabeko koldar bihurtzen naute”. Eta behin eta berriz, James Dean Bradfielden tinbre zorrotzak errepikara garamatza: “Hau onartzen baduzu/ zure haurrak izango dira hurrengoak”.

Lau greba izan dira artikulu hau idatzi dudana astean bertan; etorriko dira gehiago; ura baino gardenago ikusten da krisiarekin *shock* doktrina erabiltzen ari direla eskubide kolektiboak larrutze-ko; eta gauza ekonomikoa bazterrean utzita ere, ikusi besterik ez dago gure hezkuntzan onartu asmo duten “Bakerako Plana” –*Pax Romana* inondik ere–. “Hau onartzen baduzu/ zure haurrak izango dira hurrengoak”. Harrigarria, kanta batzuek testuinguruz aldatuta hartzen duten esanahia.

Baina abestiaren hitzek jarraitzen dute: “Grabitateak burumakur nauka/ edo agian lotsa da/ hain gazte izateagatik/ eta hain hutsala”. Erremateko figura, porrotarena, *crescendo* batekin marrazten du taldeak: “Eta kalean gauez agure bat dabil jolasean/ bere egun loriatsuetako egunkarien adabakiekin”. Zerbait egitea norberaren esku dago. “*Suaviter in modo, fortiter in re*”, baina ez dezagun hau gurtia onartu, gure haurrek ordainduko dute-eta. ■

Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

Gonbit-txartelak astebete lehenago ekinga egingo den liburutegian.

ARRIAGA

• **Magiaderiak** Ekainak 9, 18:00.

Magia ikuskizuna. Adina: 6-12

ARIZNABARRA

• **Zergatik dago hainbeste harri ibaien ondoan** Ekainak 9, 18:00.

Ipuin kontalaria (kamishibai). Ad.: 5-7

IPARRALDE

• **Hau natura! Airea, lurra eta ura**

Ekainak 10, 19:30.

Txotxongiloak. Adina: 5-8

JOLAS JAIALDIA

• **Jolas jaialdia auzoetan**

Ekainak 14-17, 17:00-21:30.

Sansomendi-Lakua, Konstituzio pl.,
Zuberoa pl. eta Ekialdeko parkea

• **Jolas jaialdia zentroan**

Ekainak 18-26.

Florida, Arkan, Andre Maria zuriaren
pl., Espainia pl., Probintzia pl., Juan
de Ayala, Postak, Katedral berria,
Eskoritza Eskibel, Loma Jenerala.

IGNACIO ALDECOA KULTUR ETXEA

• **Erregea eta bufoia. Bertso trama**

Ekainak 17, 20:00. Andoni Egaña,
Ander Lipus, U. Elizasu (gai jartzailea).

KALDEARTE

• **Ipuin txotxongiloak.**

Ekainak 11, 18:00

Ekainak 12-13, 11:00 / 18:00.

Goiuri jauregia

• **Olympikas.**

Ekainak 12, 12:00.

Andre Maria Zuriaren plaza

DIBERTIKALE

• **Magic clown**

Ekainak 28, 19:30. Lakua

• **Bapatean**

Ekainak 29, 19:30. Abetxuko

• **Hipo eta Tomax herri kirolak**

Ekainak 30, 19:30. Iparralde

• **Nor da panpina?**

Uztailak 1, 19:30. Hegolalde

• **Mementu Ridiccoli**

Uztailak 5, 19:30. Judimendi

ETORRI ETA GOZATU GUREKIN!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Ihesi

Testua eta argazkiak:

ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Euskal Herria ezagutuz:
Leioa (Bizkaia)



Sare berdea Bilbo Handiaren bihotzean


Hemeretzi parkek, sei lorategik eta hamasei biribilgunek osatzen dute Leioako sare naturala. Biztanleen eta bisitarien gozamenerako ez ezik, sare berde honek herriaren berezitasunak nahiz historia ezagutarazteko atea ere izan nahi du.

BILBOTIK HAMAR KILOMETRORA, Txorierriatik Ibaizabaleko itsasadrera hedatzen da Leioa. Erraz helduko gara, herria ondo komunikatuta baitago, metroz, autobusez, errepidez. Unibertsitatearen eta Udalaren kultur eskaintza hiriaren egungo ikur nagusiak badira ere,

industriak eta baserriek han diraute, haiek ere Leioako nortasunaren osagaiak direna inork ez dezan ahaztu. Atzokoak eta gaurkoak bat egiten dute Leioan eta bertako sare naturalak horren lekuko izan nahi du. Horrela, Udalak berebiziko garrantzia ematen dio ondasun

naturala zaintzeari. Hogeit bat dira, Mikel Ibarrondoren zuzendaritzapean, altxor hori zaintzeko, handitzeko eta jendearengana gerturatzeko ardura duten udal lorazainak, Leioako berezitasunak nabarmentzea ahaztu barik. Horren harira, ondasun horiek ezagutarazteko

Pinosolo parkea, isiltasun oasia Bizkaian auto gehien jasaten duen errepideetako batetik oso metro gutxira.





Ezkerrean, Leioako ereserkiaren berbak eta partitura dituen biribilgunea. Goian, Mendibile parkea. Bertan dago izen bereko jauregia, gaur egun Txakolinaren Museo bihurtua.

bizikletaz, oinez zein kotxez egiteko ibilbideak prestatzen ari dira gaur egun. Lorategiak, parkeak eta biribilguneak zer estilotakoak diren (frantziarra, japoniarra, erromantikoa), eta zer islatu gura duten dira, besteak beste, eskura izango ditugun argibideak.

Parkeak

Arestian esan dugunez, hemeretzi parke ditugu Leioan, mota askotakoak. Artatza eta Pinosolo familia boteretsuen garaietakoak dira. Gizakiak sortutako parkeak dira, diseinu berezikoak. Pinosolok, esaterako, mota askotako zuhaitzak eta zuhaixkak ez ezik, beste hainbat bitxikeria ditu: arrosoondoak, urmaelak... Bilbo eta Uribe Kosta lotzen dituen *Avanzada* errepidetik oso metro gutxira dauden arren, isiltasunaz gozatzeko leku aproposak dira. Horiek biak eta Euskal Herriko Unibertsitateko *Arboretum* Leioako parke handienak dira. Azken horrek 130 motako 1.700 zuhaitz ditu, hemeretzi hektarea-

tan. Hiru gunetan banatzen dira: batean, Euskal Herriko berezko zuhaitzak ditugu; bigarrenengoan, gurea bezalako klima duten Asiako eskualdeetatik datozenak; eta erabilerara produktiboa dutenek osatzen dute hirugarren eremua. *Arboretum*-en heliosziametroaren plaza, anfiteatroa eta erakustaldietarako gunea ere aurkituko ditugu.

Mendibile eta Sarriena parke berriak dira, auzotakoak. Lehenengoan, egun Txakolinaren Museoa gordetzen duen eta parkeari izena ematen dion jauregiaren ondoan dugu. Mendibile frutatarbolez osaturikoa da, hala nola mizpirondoak, gereziandoak, gaztainondoak edo sagarrondoak. Sarrienako futbol zelaiaren inguruan dago eta 7.000 metro koadro ditu, berriz, Horoskopo parkeak. Han diren 21 motako 81 zuhaitzek bat egiten dute horoskopo zeltarekin. Zuhaitz mota bakoitzaren ondoan bada informazioa ematen digun plaka bana: zuhaitzaren izena latinez, euskaraz eta gaztela-

niaz; dagozkion jaiotze-datak, eta data berean jaiotakoen izaera eta joerak. Parke honek badauka bisitariek aurkitu beharreko sekretua, bizitzarekin zerikusia duena. Baietz aurkitu!

Sagarrabarrena, Negurigane, San Bartolome, Ugarteondo, Kurkudi, Tuñón de Lara, Elexalde, Aldapa, Ondiz eta Burdione sare berdean dauden beste auzo-parkeak ditugu.

Biribilguneak


Beste hainbat lekutan trafikoa arintzeko baino balio ez duten biribilguneak, arte bihurtu dituzte Leioako lorazainek, kolorez tindaturiko diseinuari segituz. Aurrerago esan dugun lez, lorazainen lanak Leioako berezitasunak, nortasuna, dituzte oinarri. Biribilgune batek golf zaharra gogoraziko digu; beste batean, adibidez, Leioako ereserkia aurkituko dugu, partitura eta guzti. Ikusgarria, Leioako udal lorazainek herritarren begiak alaitzeko eta bizitzari mamia emateko egiten duten lana. ■



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarriren umorea

Bi albisteak

Lagun batek besteari:

- Bi albiste eman behar dizkizut.
- Hasi txarretik!
- Ez, ez! Biak dira txarrak!

Amaren kezka

Afaltzen ari direla honelaxe esan dio Mirenek Joni:

- Jon, kezkatuta nago gure semearekin.
- Zer dela eta, Miren?

- Iruditzen zait kasu egiten diola baita hurbiltzen zaion lehen txorari ere... Berarekin hitz egin beharko zenuke!

Garuna

- Zer alde dago Berlusconiaren eta oliba baten artean?
- ?!?
- Kolorea!



Soluzioa

B	E	B	A	Z	T	O	P	A	N
S	E	B	O	L	E	K	U	O	N
H	E	R	T	A	L	E	K	U	O
G	E	R	T	A	L	E	K	U	O
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
B	E	B	A	Z	T	O	P	A	N
S	E	B	O	L	E	K	U	O	N
H	E	R	T	A	L	E	K	U	O
G	E	R	T	A	L	E	K	U	O
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
B	E	B	A	Z	T	O	P	A	N
S	E	B	O	L	E	K	U	O	N
H	E	R	T	A	L	E	K	U	O
G	E	R	T	A	L	E	K	U	O
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
B	E	B	A	Z	T	O	P	A	N
S	E	B	O	L	E	K	U	O	N
H	E	R	T	A	L	E	K	U	O
G	E	R	T	A	L	E	K	U	O
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetza zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**




Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Genoma artifiziala zelularen gidari

AEBETAKO JVCi INSTITUTUKO Daniel Gibson, Clyde Hutchison eta Hamilton Smith-ek zuzendutako ikerketaren berri eman da *Science* aldizkariaren maiatzaren 21eko zenbakian: *Mycoplasma mycoides* bakterioaren genoma sintetizatu eta *Mycoplasma capricornum* bakterioaren ADNaren ordezkatu zuten; azken bakterio horrek kolonia handia sortu zuen, "bakterio-kume" guztiak ADNaren sintetizatua zutela.



Hogei lagunek hamar urtean lan egitea, eta 32 milioi euro behar izan dira aipatutakoa lortzeko. Hain garrantzitsua al da lorpen hori? Itxuraz bai: energia sortzeko ahalmena duten zelulak kantitate handitan sor ditzagun, edo petrolio isuri baten aurrean sor dezagun petrolioak eta transformatuko duten zelulak, edo farmazian oso garestiak diren sendagaiak kopuru handietan eta beraz merkeago sortzen lagunduko diguten zelulak, edo...

Ikerlariek garbi utzi dute, bestalde, ez dutela bizirik sortu, biziaren duen zerbait manipulatutako baino ez dutela egin.

Xenonaren abantailak jaiotzean oxigeno falta izan duten haurrentzat

BRISTOL-EKO UNIBERTSITATEKO (Erresuma Batua) Marianne Thoresen irakasleak garatutako teknika aplikatu da lehen aldiz St. Michael ospitalean.

Erresuma Batuan 1.000 inguru dira urtero, bederatzi hilabeteko haurdunaldiaren ostean, oxigeno-arazoekin jaiotzen diren umeak. Horren ondorioak izugarriak izan daitezke: garunaren paralisia dugu kasurik ezagunenetakoa.



RUTH VARGAS

Jaiotzeko unean oxigeno falta izan duten umeen kasuan ezaguna da garuneko hotzak duen eragin positiboa, baina neurri batean baino ez. Marianne Thoresen irakaslea hotzari lagunduko zion zerbaiten bila abiatu zen, eta xenon gasa ikertu zuen. Xenona anestesikoa da, inerte, eta zortzi urteko ikerketaren ondoren garunaren hozketaren eragina areagotzen dela frogatu da berriki St. Michael ospitalean egindako probetan.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Izarrek planetak jan ditzakete

Guregandik 600 argi-urtera dagoen Cocher konstelazioan, izar bat inguruan biraka ari den planeta jaten ari da pixkanaka, *Hubble* teleskopioak hartutako irudien arabera. Uste denez, hamar miloi urte barru izarrek erabat irentsiko du planeta.

<http://ttiki.com/13623> (Frantsesez)

Orain ehun milioi urteko ugaztunen ilea eta gaurkoena berdina dira

Frantziar fosilak aztertzen ari zirela, orain dela ehun miloi urteko sagu baten ilea topatu dute, ustez munduan inoiz topatutako ilerik zaharrena. Haren ezaugarriak aztertu eta gero, gure ilea orduz geroztik ez dela gehiegi aldatu ondorioztatu dute.

<http://ttiki.com/13624> (Frantsesez)

Marten errekorrak hausten

Joan den mendean bidali ziren lehen sateliteak Marte aldera. Horietatik asko egungo espazio-zaborraren parte baino ez dira, baina beste batzuek lanean dira. oraindik. Esate baterako, NASAREN *Opportunity* robotak sei urte eta lau hilabete darma planeta gorrian informazio biltzen.

<http://ttiki.com/13625> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka



KENPEI-CC BY SA

Kaixo. Gaztelaniazko *flor de pascua* (zelan da euskaraz?) bat daukat. Hasieran zeuzkan hosto gorriak jausi zitzaizkion eta orain ez dira berriz ateratzen. Zer egin beharko litzateke ateratzeko? Nerea Sainz de Murieta (Sopela).

Kaixo Nerea. *Euphorbia pulcherrima* Pazko lorea deitu izan dugu eta poinsetia izenez ere topatuko duzu.

Aipatzen dituzun hosto gorri horiek ez dira benetako hostoak. Brakteak dira, adarraren puntaren puntako loreak inguratzen dituztenak. Loreen bueltan daude, haiek babestu eta intsektuak erakartzeko. *Euphorbia* genero honetako landareen loreak ttiki-ttikiak dira, baina "hosto" gorri horiekin ikusgarri asko bihurtzen dira. Beraz, hosto gorriak landarea loratzera doanean soilik agertuko dira. Sekulakoa bada ere, ez da betiko jantzi.

Landarea berdetan euste soil nahikoa lan izan ohi da. Toki argitsu eta epela behar du. Ura tamainan eman, hostoak ez busti eta lurra lehortu arte ur berririk ez eman.

Berez udaberrian loratzen da, negua amaitzean. Horixe da kakoa, negua pasatzea. Pazko loreak neguko egun motzak zenbatzen ditu. Argi gutxiko 80 eta 100 egun artean igaro ondoren loretara joko du eta "hosto" gorriak ireki. Naturalki martxo aldera egiten du, baina muintegietan loraldia eragin egiten zaio. Abuztuaren amaiera aldera eguzki orduak kentzen zaizkio, ilunpetan sartuz, horrela landareak negua iritsia dela usteko du eta urte amaiera alderako loratu. Eguberrietako txoraldian eta euroaldian merkaturatzeko pronto.

Tokikotzen

BUKATZEN EZ DEN KATEA osatzen ari naiz Madeirako bueltaxkaren etekin. Izan ere hura landare-jana, hura janka.

Gure mendienak baino dezente handiagoko malkarrak dira hangoenak. Horrek nekazariei lana zaildu die, baina baita asmoak eta pentsabideak ere. Zaildu eta zorroztu. Ikustekoak dira hango terrazen plantak. Nahi gabe ere, harri haiek bata bestearen gainean jarri dituztenen eskuak irudikatzen dira. Zorabiatzeko moduko pendiz haietan bizimodua moldatu dutenak, haiek bai artistak! Eta artistek pizgarriak behar. Eta pizgarriak munduak sortzen ditu; tokian tokiko munduak, bertakoak. Eta pentsakeraren mundu horiek ez dira axaleko. Sumatu baldin badaiteke ere sakoneko hartu eta emanak azaleratzen du toki bakoitzeko mundu hori. Uharte honetan, adibidez, bi landareekin duten ohiturak arreta piztu dit. Lagun bidaiarearen amak, Maria bertako alabak, kautxu-landarea (*Ficus elastica* cv. Decora) eta farfugio pintarra (*Farfugium japonicum* cv. Aureo-maculata) ezin ditu etxean ikusi. Bere onetik ateratzen dute landareok hileritik kanpo ikusteak, eta bere aitak hala esaten omen zuen: landareotakoren bat etxeren batera inguratuz gero, hiletaren bat ez dela urruti izaten... Kanpotik, Portugalek izandako koloniatatik ekarritako landareak dira biak; India aldetik lehena eta Japoniatik bestea. Beren kultura, kolonietan hildako milaka eta milaka lagun portuges eta bertako txertatuak izango dituzte bere iruditerian landare hauek tarteko. Kanpokoak direlako soilik ere izan daiteke, bestetik bereiziz sortzen baitugu gure burua. Bere burukomin eta guzti. Geure minen etxeetan lasai asko darabilzkgu bi landareok...

37.152.300.000



Jaki ekologikoen kontsumoa gorantz, urteko %3-6 artean. 2008. urtean izenburuko euro pilatzar hori gas-tatu omen genuen munduan ekologikoak erosten. Agidanean 2009an ere antzeko joera izan da. Erdia baino gehixeago European eta hamarretik lau AEBetan. Beste apurra hor-han.

VIVEROS

Fadura

Konifera eta zuhaixken
produkzioa eta lorezaintza

Mota guztietako
zuhaitzen salmenta

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 BERANGO (Bizkaia)

Tel. 618 86 63 41 · 657 79 08 11

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Ehun urteko abstrakzioa



WWW.CV.UOC.EDU

Lehen akuarela abstraktua (1910) lanaren bidez, Wassily Kandinskyk pintura garaikidearen bide nagusietakoa zabaldu zuen.

MUNICH, 1910. Wassily Kandinsky (Mosku, 1866-Neuilly-sur-Seine, 1944) margolariak *Lehen akuarela abstraktua* burutu zuen, inolako erreferentzia figuratiborik ez zuen lehenengo artelana, alegia.

Musika, folklorea eta etnografia zituen gustuko Kandinsky errusiar gazteak, baina zuzenbide eta ekonomia ikasketak egin zituen. 1889an Parisera bidaia egin eta Rembrandten koadroen erakusketa bat ikusi zuen; orduan piztu zitzaion pinturarekiko grina. Handik urte batzuetara, 1895ean, frantziar inpresionisten lanez osatutako erakusketa bisitatu zuen eta, karrera juridikoa baztertuta, pinturan jardutea erabaki zuen.

Hurrengo urtean Munichera joan zen lanbide berria ikasteko. Hainbat urtetan beste herrialde eta hiri batzuetan, bereziki Parisen, egonaldia luzeak egin eta gero, 1907an Alemaniako hirian finkatu zen. Hantxe nahiz Murnauko udako etxean abiatu zuen hiru urte geroago abstrakzioaraino eramango zuen bidea. Paisaiak egin zituen batez ere. Kolore

puruak, biziak erabiltzen zituen paisaia horietan, gero lan abstraktuetan bezala. Formak desagiten joan ziren, eta elementuak gero eta sakabanatuagoak zeuden errusiarraren obretan.

1910ean burutu zuen errealtatearen disoluzio prozesu hori, historiako lehen artelan abstraktua egin zutenean. Artelan iraultzailea izanagatik, euskarri apala eman zion Kandinskyk. Bigarren mailakotzat jotzen zen teknika erabili zuen, akuarela, eta, beraz, paperaren gainean egin zuen. Neurritz ere ez da artelan handia: 50 x 65 zentimetro neurtzen du, gutxi gorabehera.

Finen, esperimientua zen. Lehenago beste abangoardia batzuk hasi ziren artearen autonomia osoa lortzeko ahaleginean. Fauvismoak eta espresionismoak kolorea askatu zuten; kubismoak, aldiz, ohiko formak eta konposizioak hautsi zituen. Baina zuzenbidean lizentziatutako errusiarra izan zen azkenean osagai horiek nahastu eta abstrakzioaren formula aurkitu zuena.

Arrastoak

Espainiako uso militarrei agur

USO MEZULARIRIK ez du izango hemendik aurrera Espainiako armadak, martxoaren 8ko Errege Dekretuaren arabera. BOEn argitaratutako testuak dioenez, “teknologia berriek modu eraginkorrean asetzen dituzte Defentsako lotura beharrak” eta, hortaz, funtzio militarrek zituzten usoei erretiroa eman diete. 330 ale gertatzen ziren Madrilgo erregimentuan.

Uso horien soldadutza 1879an hasi zen Espainian, baina ordurako munduko armada askotan erabiltzen zituzten. Uso horiek egunean 700 kilometro egiteko ahalmena dute, baina norabide bakarrekoak dira: abiapuntura itzulitzeko gaitasuna baino ez dute. 1937an frankistek uso bati insignia jarri zioten, egindako lana eskertzeko. 46.415. alea zen. Gero, disekatuta, Armadaren Museoa ipini zuten ikusgai.



WWW.UPRM.EDU

Alemaniar armadako uso mezulariak 1917an.

Abangoardia eta esklusiorik gabeko ezker berria helburu



Ander Rodriguez

Ander Santiago

Ander Rodriguez (Donostia, 1982) eta Ander Santiago (Gasteiz, 1969) Alternatiba eta Zutik alderdietako kideak dira hurrenez hurren. Arrasatearrak dira biak. Lehena, bertako udal zinegotzia. Biek gizarte mugimenduetan oinarritutako ezker berri baten alde dihardute.

MIKEL ASURMENDI
Argazkiak: Junkal Amores

2011KO UDAL ETA FORU hauteskundeak lehen mugarrira izan liteke ezkerreko indarrak biltzeko. Solaskideen ustez inkognitak argitzeko garaia da: “Kontua ezkerreko indarrak zertarako aurkezten diren ondo zehaztea da, ez da estrategia kontua, taktikoa baizik. Asmoa ez da sigla gehiago biltzea, modu naturalez batzea baizik”. Premisa hauek aintzat harturik abiatu dugu elkarriketa. Edonola ere, herriko instituzioetan lan egin beharraz harago edo honago, batez ere, ezkerrearen izaeraren eta bilakaeraren ardura dute biek ala biek.

Mintza gaitzen Alternatiba nahiz Zutik alderdien izaeraz eta egoeraz.

ANDER RODRIGUEZ: Alternatibaren izaera oker samar ulertu da batzuetan. Alternatiba ez da EBko zatiketa soil, EBko kide ginenok gutxiengoa gara-eta. Gure egoeraren diagnosa hau da: ekonomiak

kapitalismoaren krisia agertu digu, baita ezkerrena ere, ezkerre ez baita egoera eraldatzeko behar diren bitartekoak sortzeko gauza. Gabezia hau dela-eta hasi zen Alternatiba Eraikitzen prozesua gauzatzeko, Alternatiba izatera heldu dena. Gure ideia ez da Alternatiba helburu izatea, bitartekoa baizik. Alternatiba Euskal Herriko ezker erradikalen birplanteatzeko medioa da, klabe subiranistan eta gizarte eraldatzeko klabeak.

ANDER SANTIAGO: Gu, militante gehienok, trantsizio garaitik gatoz. Mugimendu sozialek ordea, orduan zuten indarra galdu dute. Zutik zahartuz joan da eta berritu beharra dauka. Zutik ez da soilik sortu zeneke LKI-EMK alderdiez elikatu, ez da diskurtso bakarrekoa izan, ideologia askoren ekarpena izan du. Nazio arazoak sortarazi digu kontributsia gehien, Lizarra-Garaziko

porrotaren ostean arazo hori areagotu zen gure artean. Gure izatea, ezker osoaren bilakaerak baldintzatuta dago. Azken urteotan, Aralar, Alternatiba, Alderdi Antikapitalista proiektu berriak agertu dira. Ezkerrearen desantolaketa garaia dela dirudi, baina ez da guztiz horrela, ezkerre bere bidea argitu beharrean ari da. Euskal Herrian bereziki, indarrak berrantolatzen ari dira zer-bait berria eskaintzeko.

Egizue ezkerrearen krisiaren diagnosa.

A. SANTIAGO: Ezkerrearen krisiaz jardutean oso euro-zentristak gara. Europatik eta eredu europarrak ari ohi gara. Joera hori neo-kolonialismo politiko moduko bat da. Alegia, hemen ezkerrearen krisia dago, baina ez Latinoamerikan: Bolivia, Ekua-dor eta Venezuelako ezkerre ez dago krisian, aitzitik, gizarte mugimenduak indartsuak dira eta pentsaezi-

nak ziren aldaketa sozialak gauzatzeko ari dira. Besterik da Europako ezkerrek jardutea.

A. RODRIGUEZ: Zehazpen egokia da. Ezkerreko krisiaz ari garenean, European kolapsatu den ezkerreko ereduaz ari gara. Ezkerrak ez du jakin sistemaren alternatiba sendo bat sortzen, areago, kasu askotan, boterearen oposizio formala izaten konformatu da, eta oposizio formala ere boterea sendotzen du. Ezker mugimendu sozialetatik aldentuz joan da. Orain berriz, erreakzioanatzten ari da bitarteko eta erakunde baliagarriak eraikitze-ko. Izatez, erakundeak ez dira ezkerren helburu izan behar, guk erakundeak bitartekoak bezala ulertu behar ditugu gizartea transformatzeko. Frantzia (NPA), Alemanian (Die Linke), Portugalen (Bloco) edota Grezian ezker erradikala eraikitze saio serioak daude. XXI. mendean, ezkerreko indar berria sortzeko moduko kapital politiko

koa izatea baizik. Gizarte mugimenduen borroka xedea egungo sistemaren eredu gaitztea da, eta eredu kapitalista gaitzteko borroka mota eta arlo –feminismoa edota ekologia– guztiak bateratu beharra ikusten dugu.

“Transformazio soziala ezin da instituzioen bidez gauzatu”

ANDER RODRIGUEZ

A. SANTIAGO: Ados. Halaber, Europako ekialdea eta mendebaldea bereizi beharra dago. Europako antzinako alderdi komunistaren eredu frakasatu da. Kapitalismoak berriz, oso tarte txikia utzi du erreformatzeko, krisi honen ostean are gutxiago. Sozial-demokraziaren bandera ongizatearen estatua da, aurpegi humanoagoa omen daukan kapitalismoa erreformatzea. Alabai-

sozialen murrizketak ekarri dituzte. Kupula sindikal handiek ohea egin diote neo-liberalismoari.

Arrasatearrak zarete. Zer ekarri nahi duzue euskal ezkerren gauzatzeko?

A. RODRIGUEZ: Arrasaten, esaterako, guk sinergia prozesu bat landu genuen, ez genuen ekimen elektoral amankomuna planteatu. Aurreko lau urteetan kaleko lana egin genuen, mobilizazioak eta borrokarako lan komunak. Udal gobernuaren politiken alternatibak sorrazi genituen. Guk hauteskunde prozesuak ez ditugu estrategikotzat jotzen, taktikoak baizik, hauteskundeak zedarri bat dira beste zedarri batzuen artean. Instituzioetako lanak balio du bozgorailu bezala, baina transformazio soziala ezin da instituzioen bidez gauzatu. Gu ekimena bi modutara garatzen saiatzen gara: instituzioetan ordezkari izan baldin badaukagu beren muga hertsietan lanean dihardugu, baina aldi berean instituzio hauen eredu aldatzeko apustu egiten dugu.

A. SANTIAGO: Gure lana instituzioetan oso mugatua da, baina itunak naturalak izatea defendatu dugu, paktuak beheko militanteek gauzatzeko. Ez gara siglen metatzaren aldekoak, alderdiko zuzendaritzek hori aholkatzen dutelako. Udalgintzan ez badago ekintzazko programa bat, ez da ezer berririk sortuko. Gainera, askotan, emaitza lortu nahi dugunaren kontrako izaten da. Guk Arrasaten Alternatibako kideekin egindako lana oso positibotzat jotzen dugu. Areago, ez bakarrik Arrasaten, Antzuola, Oñatin eta Bergaran –hemen zinegotzirik izan gabe ere– lan asko eta baikorra egiten ari gara. Etorkizunean koalizioari eustea espero dugu eta ezkerreko beste jendeekin jardutea.



“Kontua ezkerreko indarrak zertarako aurkeztzen diren ondo zehaztea da, ez da estrategia kontua, taktikoa baizik. Asmoa ez da sigla gehiago biltzea, modu naturalez batzea baizik”

eta sozialak badaude European. Ezkerrak mugimendu sozialetatik elikatu behar du, baina ez erabilpen manikeoak egiteko. Gure herrian, berbarako, mugimendu sozialen artean akordio bat eman denean, berau instrumentalizatzeko joera izan da. Guk ez dugu ezker berria mugimenduen transmisio-uhala izatea nahi, berauek elkartzeko bitarte-

na, kapitalismoak sistema kolapsaturik ikusi duenean espazioa murriztu da. Ondorioz, sozialdemokraziari ez zaio erreformatzeko ezer geratu. Mintza gaitzen argi eta garbi: sozialdemokraziarik gabe neoliberalismoa ezinezkoa litzateke. Adibidez, Berlingo harresia erori zenetik, Europako alderdi sozialdemokratek eta laboristek eskubide

Euskal Herrian ezkerren krisiak badu al du berezitasun aipagarririk?

A. RODRIGUEZ: Euskal Herriko ezkerren krisia guk aipatu ditugun antzeko parametroetan ematen da, baina aldi berean, nazio aldagaia dago, elementu distortsionatzailea eskuin/ezker bitasunean. Euskal Herrian eraiki behar du ezkerrek garbi izan behar du nola ekin nahi dion nazioaren gaiari. Ezker/eskuin

ardatza ondo aztertu behar da, eta aldi berean, nazioaren gaiari egokiro heldu. Zentzu horretan, ETA distortsio eragilea bihurtu da, ETA edota borroka armatuarekiko aldeko jarra. ETArekin borroka armatuarekiko hartu behar den jarrera argiak altzaruzko hesi moduko bat altzaraziko du eta ezkerrearen konbergentzia prozesua indartzen lagunduko du.

"Mintza gaitezen argi eta garbi: sozialdemokraziarik gabe neoliberalismoa ezinezkoa litzateke"

ANDER SANTIAGO

A. SANTIAGO: ETA traba da ezker berria konfiguratzeko. ETak armak utziko balitu den-denok —ezker abertzaleak nahiz ezker erradikalenak— irabaziko genuke. Horrek ezkerreko mugimendu zibilari bidea ematen lagunduko lioke. Desobedientzia zibilean ondo oinarritua, borroka sozialak ondo sustatuz gero, euskal ezker indartuta aterata liteke.

Nola bizi duzue ezker abertzalean ematen ari den prozesua?

A. SANTIAGO: Gu aiduru gaude, ilusioz, ez dakigu nola bukatuko den, baina gatazka gainditzeko abiatzen diren prozesu guztiak oso positiboak dira. Ezker abertzaleak apustu ausarta egin du, baina ez dakigu ETA zein posiziotan dagoen. Dena dela ere, ezker abertzalearen baitan begi-bistako aldaketa eman da. Estatuak garatu dezakeen politika antiterroristan "erreparatu" gabe, aldaketarako apustu egin du. Nik espero dut mugimendu zibila garaile ateratzea eta parametro horietan Alternatiba eta Zutik-ekin bidean aurkitzea. Euskal ezkerrearen bilakabidean emango den eztabaidan lekua izatea espero dugu.

A. RODRIGUEZ: Bat nator Anderrekin. Egokiena da orain ezker abertzalearen prozesuan "ez sartzea". Prozesuak Euskal Herriko gatazka-ren parametroetan eragingo du, eta bistan da, ezkerrearen espazioa birdefinituko da. Birdefinitzio horretan Zutikek eta Alternatibak badute zer esana, asko gainera. Ezker sendo berri batek kultura politiko berri bat

behar du, iraganeko kultura politikoak baztertu behar ditugu. Euskal Herriko ezkerrearen baitan oso sartuta izan den abangoardismoa atzean utzi behar da, baita hainbat eskusio mota ere.

Zer ekar dezake historikoki ezker internazionalistak?

A. SANTIAGO: Badaude kapitalismoa erreformatzeko modua ikusten duten alderdi antiliberalak, sozialdemokrazia zenaren abarora. Badago proiektu iraultzailearen inguruan zabaltzen ari den diskurtso nagusi bat. Niri, hori entzunda, atzera goazela dirudit. Beste sektore batek dio: kapitalismoa ezin da erreformatu, suntsitu behar da.

Mugimendu altermundista dela medio kontsigna bat sartu zen ezkerrean oso barruraino: "Beste mundu bat posible da". Niretzat kontsigna hutsa da, areago, koldarra. Alegia, zein beste mundu nahi dugun esateko unea iritsi da. Ezkerreari dagokio hori argitzea, bere betebeharra kapitalismoaren alternatibak eraikitzea da, "ez beste mundu bat posible da" esatea soilik.

A. RODRIGUEZ: Ez dezagun sozialismo produktibista bat egin, alegia. Ezkerrekin eredu berri sozial eta ekonomikoa tradizio ekologistarekin nola uztartu behar duen planteatu dezala nahi dugu guk. Ekosozialismoaren birdefinitzioa landu behar du ezkerrekin. Euskal Herriko ezkerrearen akatsak bat ezkerrearen harreman internazionala nazioaren galbahe pean iragaztea izan da. Nik harremanak izan ditut nazio-gatazka bizi duten erakundeekin, eta ondo dago arloa lantzea, baina erreferenteak bilatu eta sareak hedatu behar ditugu munduan barrena. Ezkerrearen borroka ezin da Euskal Herriaren esparrura mugatu, borroka globala da, lokaletik globalera bide egin behar dugu ezkerreko beste indarrekin elkarlanean. ■

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



Con la oreja paretari pegatuta

Grabagailu ezkutuarekin esperimentua burutu dugu, hizkuntza batetik bestera nola egiten dugun jauzi aztertzeko. Fenomeno arrunta eta hedatua da munduan, izena ere badu, *code switching*, eta positibotzat jotzen da eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzea. Gurea bezalako hizkuntza gutxituentzat, ordea, onuragarri ala kalterako da hizkuntzen alternantzia?

MIKEL GARCIA

“ZE HOTZA E! / Ta haizia... / Haizia, Zarautzen... De cortar! / Ta komentau due hurrengo astean hoge gradura ailegau daitekeela! De la temperatura que tenemos ahora y la semana que viene veinte grados! / Hain denbora gutxiyan ze gorabehera egiten ditun...”. Gorabeherak solasaldi honetan erabilitako hizkuntzenak, lau pertsonen arteko jardunean, familia giroan. Izan ere, ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean ezin da elkarreragina saihestu; gure kasuan, gaztelaniarekin Hegoaldean eta frantsesarekin Iparraldean. Elkarreagin mota desberdinak eman

daitezke, baina bi hizkuntzetako pasarteak beregainak direnean –hizkuntza aldetik zuzenak, alegia–, *code switching* edo kode aldaketa dagoela esaten da: testuinguru jakin batean, ez dira hizkuntzen arteko mugak kontuan hartzen, baina solaskideak gai dira beste testuinguru batean euskara hutsean nahiz erdara hutsean aritzeko.

Finean, adierazkortasuna irabaztea da kode aldaketaren helburua, eskura dugun errepertorio –mintzaira, esamolde, lokuzio, espresio– ahalik eta zabalena baliatuz; baina horretarako, solaskideen artean

nolabaiteko hurbiltasun harremana beharrezkoa dela azaldu digu Nekane Goikoetxea HUHEZIKo irakasleak: “Kode aldaketa egiten duen hiztuna hizkuntza biak nahasi gabe aritzeko gai da, baina une jakin batean, testuinguru jakin batean, alternatu egiten ditu konfiantzazko solaskide batekin”. Esaterako, konfiantzazko traturik gabe ezohikoa izango litzateke entzutea amak alabari afalondoan kontatua: “Nos van a meter un zartako... Ze goian luzeroak jarri nahi omen dituzte. Ta segurokoa dator bihar, para llamar al fontanero”.

Goikoetxearen esanetan, ez daki gu prozesua beti kontzientea den ala ez. Txikitatik jada, haurrek 6 bat urte dituztenean eta gaitasun sozio-linguistikoa garatzen hasten direnean, gizartearen eskura duten bigarren hizkuntzaren formak erabiltzen hasten dira. “Beraiei berdin zaie forma horien jatorria zein den, gaztelaniaz ala euskaraz ari diren. Adierazkortasun handiagoa lortu nahi dute eta horretarako errepertorio osoa darabilte, balorazioak alde batera lagata”. Goikoetxearen ustez, momentu batzuetan alternantzia prozesu hori inkontzientea izan liteke, kontzientzia metalinguistikoa, hizkuntzaz hausnartzeko gaitasuna, alfabetatze prozesuekin lotuta baitago. “Heldu batzuen kasuan ere, antzerako zerbait gerta liteke”.



Familia eta lagun giroan, konfiantza tarteko, eman ohi da kode aldaketa.

'In fraganti' harrapatuak

Testu nagusiko nahiz koadro hone-tako adibideetan agerikoa denez, Gipuzkoan egin dugu esperimendua, eta gaztelaniarekin nahasten da euskara, baina frantsesarekin gauza bera gertatzen da Ipar Euskal Herrian:

Lagunak niri:

– Calla, calla. Atzo berriz beheko bizilaguna, qué agobio. Gaueko bea-tzi terditan iritsi nintzen etxera ta piiiinii, tinbrea. Es que orain ez, baina udan no me puedo poner ni en pelotas, beti deika! Ta gainera esaten dit que oye todo, paretak que son muy finas ta entzuten dula noiz esnatzen naizen ta noiz oheratzen naizen! Ba nik ez dut ezer entzuten, parece que está con la oreja paretari pegatuta, con el vaso!

Jangelan:

- Zer da, de verduras, tortilla?
- Piperrak eta patata.
- Pier Paulek 58 urte? Ez dirudi hainbeste...
- Nere amak esaten du "hain guapoa..."
- Hombre...
- Tiene algo...
- Sí tiene...
- Nere amak dio ondo abesten due-lako gustatzen zaiola.

Aita, ama eta bi alaba:

[Pasapalabra telebista saioaz]:

- Atso horrek euskera jakitia...
- No sé cuántos idiomas habla la tía...
- Ta klaseak ematen ditu de lengua, de inglés, eta de latín edo... Perio-dikuan jartzen du, que habla ez

dakit zenbat idioma.

- Eta zenbat urte ditu?
- Hogeita bost.
- Hor bada elurra, mecaguen...
- Hori ez da normala...
- Bartzelonan, Luisakin a ver hitzei-ten deten baina... eso no creo yo que sea normal allí, elurte hoiek eta... Menos mal que tiene buena calefacción, porque si no la Luisa... Menos mal.
- Gizendu egin beharko du, azkar-azkar.

Alabak amari:

- Arrollamiento en el tren, menuda espera. Pasaia ta Herrera artean bere buruaz beste egin zun mutil batek asteartean, bueno bere buruaz beste dira comentarios de la gente.

Ikuspegi psikolinguistikoa vs. soziolinguistikoa

Mundu guztian hedatua dagoen fenomeno linguistikoa da hau, ohiko-komunitate eleanitzetan, berezko ezaugarri baitu hiztun eleanitzak. Psikolinguistikoki, beraz, baliabide arrunta da. Baina eta soziolinguistikoki? Euskara hizkuntza gutxitua da, eta holako egoera batean, hiztunak ez badio hizkuntza minorizatuari eusten, arriskua egon daiteke kode aldaketak azkenean hizkuntza higatzeko. Hala dio Goikoetxeak: "Gure kasuan aztertu beharko litza-teke zein lotura duen hizkuntzaren bizi-indarrarekin. Hau da, zein elebidun tipologiak egiten duen kode aldaketa hori eta zeintzuk erabiltzen duten gaztelania makulu bezala, euskarazko gaitasun falta estaltzeko".

Arreta jarri ondorengo bi kasue-tan. Batetik, ama-alabak, sukaldean hitz aspertuan: "Ze arrain ekarri duzu? / Pues tres doraditas... que

estaban... Razi-yukoak o esan zun, baina zuek ez duzue bana jango... / Ez, hori osoa jateko... / Igual da, ya iremos comiendo poco a poco".

Hainbatetan, gabeziak, utzikeriak, konplexuek, harrokeriak, kolegeoak... bultzatzen gaitu erdarara, eta joera ezkorra izan daiteke

Bestetik, ile-apaintzailearekin izan-dako elkarrizketa: "Eseri hemen. Ilea garbia daukazu / Bai, kirola egi-tetik nator eta dutxatu berri naiz / Pues entonces te haré un solo lava-do suave, vale? (...) Etorri hona, eseri. Ahora vendrá alguien a cortar-te el pelo". Lehenengo kasuan, eus-kara menderatzen dute hizlariak, eta etxeko intimitatean lizentzia batzuk hartu dituzte. Bigarreanean, bi hiz-

kuntzak nahastu ditu bezeroarekin konfiantzarik ez duen ile-apaintzaileak. Hainbatetan, badirudi gabeziak, utzikeriak, konplexuek, harrokeriak, kolegeoak... bultzatu gaitzakeela erdarara, eta joera ezkorra izan daiteke, baldin eta testuin-guru jakinetarako euskara gutxietsi eta erdara gailentzen badugu.

Hizkuntzen arteko elkarreraginaz ikerketak egin direla zehaztu digu HUHEZIKO irakasleak: orokorrak (Esnaola, 1999; Etxabe, 1999; Sarrionandia, 1992), gazte-hizkeren inguruan (Amonarriz, 2008; Anaut, 2010; Muñoa, 2002; Goikoetxea, 2007) edota Erroibarreko hizkun-tzen arteko ukipenez (Ibarra, 2006). Azken finean, hizkuntza batetik besterako saltoa fenomeno orokor-ra izan arren, Goikoetxeak argi du: gurea bezalako egoera diglosikoe-tan, ezin dugu begi bistatik galdu alderdi soziolinguistikoa, motz gera-tzen baita psikolinguistikoa. ■

Babeslea: Getxoko Udala



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbizua

Zabaldu euskararen atea

%50 edo %30 eko deskontua
establezimenduen errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu.

%10 edo %5 eko deskontu gehigarria
Getxoko enpresa hauetan eskatzean: TOL-DOS Y PERSIANAS MURGUIA, RÓTULOS PUBLIARTE, CIANOPLAN, ULI ARTE PERSIANAS, LA REPRO, KALKO, KISER, AMETS eta RÓTULOS ARRILUCE.



9E+1
www.9e+1.com

94 415 22 52
geh@getxo.net

BFA DFB

Euskararen herriak

TXERRA RODRIGUEZEN *Garaigoikoa* blogean izan dugu Derioko Tximintx euskara elkartearen ekimenaren berri. Euskararentzako arnasguneak gero eta gehiago aldarrikatzen diren garai hauetan, euskara elkarte bizkaitarrak hiru herri euskaldun aukeratu eta sareko erabiltzaileei informazio ugari eskaini die. Aduna (Gipuzkoa), Gatika (Bizkaia) eta Leitza (Nafarroa) dira hiru herriak eta www.blogari.net/tximintx webgunean dago informazioa.

Iralen aldaketak

IRAKASLEAK euskalduntzeko sortutako programa da Irale. Hemendik aurrera urtean irakasle gutxiago

liberatuko dira, eta ordu gutxiagoz. Irakasle horiek R600 ikastaroa ere izaten dute, euskal kulturaz gutxieneko batzuk jasotzeko. Bada, urtean 200 irakasle beharrean 40 inguru izango dira liberatuak eta ordu gutxiagoz arituko dira ikasten. Isabel Celaá Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak adierazi duenez, zazpi aste nahikoa izango dituzte irakasleek euskal kulturaz jabetzeko.

Amuriza euskara batuaz

SAIAKERA liburua argitaratu du Xabier Amurizak Lankuren eskutik: *Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara Batuen bigarren jaiotza*. Euskara batuaren arazoez eta irtenbideez aritu da. Hiru atal ditu liburuak:

Euskararen butsuneak; Aditzaren fantasia heroikoa eta Hiztegi osoa, nazionala eta bakarra.

Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendari

AKTORE, gidoigile eta zuzendaria da Goenaga donostiarra. Hemendik aurrera Etxepare Euskal Institutuko zuzendari izango da.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Makina-erremintaren Biurtekoa

Aste honetan, Barakaldoko Bilbao Exhibition Center makina-erremintaren munduko erakustokia izango da, han egingo baita maiatzaren 31tik ekainaren 5era Makina-erremintaren Biurtekoa, Euskal Herriko azoka garrantzitsuenetakoa. 24 herrialdetako 1.024 enpresa ordezkatzuko dituzten 500 erakusketetan produktu berritzaileenak erakutsiko dituzte. Biurtekoa hasterako 54 herrialdetako 45.000 bisitarik emana zuen izena. Datu horiek adierazten dute erakustoki honen garrantzia, ahaztu gabe munduko krisi ekonomiko finantzarioak sektore horri eragin diola. Sektorea esportatzailea da nagusiki, 2009ko ekitaldian produkzioaren %74,1. Horregatik, munduko gainerako lekuetan krisia baldin badago, Euskal Herrian ezarritako sektoreak –bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian–, kolpea zuzen eta segituan jasotzen du.

Sektoreak urterik txarrena 2009a izan zuen, eskaera %66 jaitsi zen. 2008an 1.056 milioi euroko produkzioa izan zuen eta 2009an 745 milioi eurokoa. Krisia enpleguan nabaritu zen, sektoreko enpresek mahai gainean jarritako hogeita hamar bat espedienteren ondorioz enpleguaren %8 deuseztatu baitzen. Aurten krisiaren ondorioak jasaten segituko du sektoreak, nahiz eta antza denez, 2011tik aurrerako itxaropen zantzuak dauden. Hargatik, Makina-erremintaren Biurtekoa aukera ona izan liteke bilera komertzialak nahiz kontaktuak egin eta sektorearen egoera larria arintzeko, bai eta puntako euskal sektore honen eta bere enpleguaren bideragarritasuna egonkortzen eta bermatzen lagunduko duten negozio bide berriak irekitzeko ere.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Berrotza erabiltzaileak Tiraka blogean esanak: “1990eko oposaketan [administrazioan] gaiak eta azterketak gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko aukera bermatuta izan arren, denok gaztelaniaz egin zuten, bali-teke salbuespenen bat izatea, baina ez dut uste. Hamar urte iragan arren, 2000. urteko oposaketan halako horrenbeste gertatu zen. Inork ez zuen euskaraz azterketa egin. Oraingoan, 2010. urteko oposaketan antzerako zerbait gertatuko delakoan nago”.

Markel Goikoetxea, Bermeoko Eleizalde Ikastolako presidentek Bizkaia!-n esanak: “[Euskararen erabilerari dagokionez] beherakadea nabarmena izan da Bermeon. Edadeko jenteagan bai igarri da, baina gazteen artean askozaz gehiago. Kanpoko jente asko be etorri da eta horrek kalte egin deutso bertoko euskereari. Baina bestalde, Bermeo herri arrantzalea izanik, arrantza-leak itsasoan egonda eta euskeraz berba eginda, itsasoan lan egitera etorritako kanpotarrak behartuta egon dira euskeraz ikastera eta, hor-tik aldetik behintzat, euren seme-alabek euskeraz ikasi dabe”.

Zain dago ama, zain aita

ETA-REN su-etenaren zain dago ezker abertzalea, zain euskal klase politikoa, zain euskal gizartearen gehiengo. Isilpeko su-etenetik aitortutako su-etenerako jauzia litzateke, denak adierazten baitu ETAk atentaturik egiten ez badu, hori bakarrik uler litekeela ezker abertzaleak daraman prozesuaren baitan.

Oraingoan, dena den, bakea eraikitzeko aukerarik izango bada, ez da izango aurreko bake prozesuetako eskemetan. Gehienek onartzen dute hori. Ezker abertzalearen gehiengo oso handiak erabaki du jada etorkizuna borroka politikoan zizelkatu behar dela, aurrerantzean armek ez dutela lekuri. Aldebakarreko erabakia da eta horrek, bururaino eramaten bada, dena aldatzen du. Arrakastatsua izango ote da?

Hipotesiei ekinez, bi muturretarabederen begiratu behar da. ETA da bata, eta bi hipotesi planteatzen daiteke epe hurbil eta ertainera begira, gutxi gorabehera udal eta foru hauteskundeen osterara arte. Lehen hipotesia: metodologiei buruzko zalantzak izan arren, ETA ados dago sakonekoarekin, hau da armak utzi beharraz eta, beraz, prozesu hau bultzatuko du, lehenik eta

behin su-etena aitortuz eta ondoren dagokion desegite negoziatuari ekinez. Dena nahiko isilean.

Bigarren hipotesia. Ezker abertzalearen presioak behartuta ETAk aukera berri bat emango lieke ezker abertzaleko "prozesu demokratikoren" bultzagileei, Lizarra-Garazin eta Loiolako prozesuan egin zuen bezala, halako zerbait esanez moduan "Ongi da, ea oraingoan zerbait lortzen duzun, bestela gu gure jardun armatura itzuliko gara".

ESTATUA da beste muturra. Nola jokatu du? Behin armen albortzea egiaztatu ondoren, gatazkaren bukaera duina bultzatuko du edo garaile eta garaituen irtenbide zapaltzaileari helduko dio? Ez dago garbi. Izan daitezkeen ikusmoldeak asko laburbilduz hara bi joera.

Batetik, hor da Jesus Egigurenen ildo, funtsean Loiolako negoziazioan islatu zena eta irtenbide

**Lehenengo sufrimendua
amaiarazi eta gero
-bitartean ere nahi bada,
baina bigarren plano
batean-, politika**

duinarekin lotua egon litekeena: gatazkaren ondorio bortitzak konpondu eta akordio politikoa euskal alderdien artean.

Beste ildo PPK eta orain Rubalcaba barne ministroak ordezkatzaketen izan daiteke: "Irabazi dugu, integratu ala hil". Azken eredu honi primeran letorkioke ezker abertzale historikoaren balizko zatiketa. ETA ahul, txiki eta marginal batek Espainian kohesioa ekar dezakeen moduan, euskal gizarte labirintoan murgildua uzten du.

ETA EZKER ABERTZALEA? Barne zatiketa saihestea du lehen helburua, baina ez ohi bezala jarraitzearen prezioan (1992an bezala, Lizarra-Garazin edo Loiolan bezala). Hori bukatu da. Ez haientzat bakarrik, euskal gizarte osoarentzat litzateke egokiena batasunari eustea, hala bakarrik ekin baitakioke modu arrakastatsuan gatazkaren ondorioen konponketari (presoak, biktimak...). Herri ikuspegi eta humanotik begiratuta, gatazkaren ondorioena bideratzeak beharko luke lehentasuna. Lehenengo sufrimendua amaiazi eta gero -bitartean ere nahi bada, baina bigarren plano batean-, politika.

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure
arteak
euskarak

Universidad
del País Vasco

BFA
DFB

BIZKAIA
BIZIA

PELLO ZUBIRIA

Israel-Hegoafrika: apartheidia eta bonba atomikoak

Israelek –munduari aitortu gabe– bonba atomikoak dauzkala gauza jakina zen. Orain azaldu da Tel Aviveko gobernuak Hegoafrikari batzuk eskaini eta ziurrenik eman zizkiola bertan *apartheid* sistema indarrean zegoenean. Xehetasunetan begiratzuz, zinegileentzako pagotxa.

RAUL CASTRO KUBAKO BURUZAGIA telebistaz zuzenean ikusteko aukera bakanetako bat joan den apirilaren 21ean eduki zuten Ameriketako *Venezolana de Televisión*-i eta *Telesur*-i erreparaka zeudenek. *Dossier* informatiboan, zuzenean, Hugo Chavez presidente venezuelarrak Castrori gonbitea egin zion telebistaioaren zuzendari Walter Martinezi galdera-ekin bat egin ziezaion.

Tartea eta pazientzia pittin bat dauzkan irakurleak asmatuko du ordu erdi inguruko galdera-erantzunak *YouTuben* ikusten baditu. Alde batetik, Castro gazteenaren hitz-jarioa ezagutuko du zuzenean. Prezio berean sartuta, asteotan Israelgo gobernuaren estatusunean jarri duen albistearen testuinguruaz hobeto jantziko da.

Izan ere, *The Guardian* egunkariak hilabete beranduago plazaratu zuen Sasha Polakow-Suransky irakasle eta nazioartean adituak eskuratu duen agiri baten berri: 1975ean orduan apartheid sistema gorrotagarria zerabilen Hegoafrikako Armstrong jeneralak eta gaur Israelgo presidentea den Shimon Peres orduan ministroak negoziatu zutela Tel Avivetik Pretoriari bonba atomiko batzuk saltzea.

Polakow-Suranskyk azalpenok *The Unspoken Alliance: Israel's secret alliance with apartheid South Africa*

(Itun aitortu ezina: Israelen hitzarmen sekretua apartheideko Hegoafrikarekin) liburuan ematen ditu, Israelen nazioarteko posizioari min handiak eraginez: bonba atomikoak aspalditik dauzkala berresten du, *apartheid* errejimen gorrotagarria sustatu zuela erakutsi eta bonba atomikoekin hainbeste kritikatu izan den Pakistanen pareko jokatu duela, edonori edonola saldu nahian.

Paperezko agiririk eduki ez arren, batzuek aspalditik zekizkiten kontuok, Raul Castrok Walter Martinezi galdera antologikoa egitean erakutsi zuenez. Kubatarrek bazituzten enteratuta egoteko motiboak: Hegoafrikarekin gerran ari ziren 1975ean, Angolako lurretan.

Angolak portugesengandik independentzia eskuratutakoan gobernu marxista zeukan, Mozambikek bezala, eta 1975ean Hegoafrikako eta Zaireko armadek inbaditu zuten bertako gerrilla eskuindarrari laguntzeko aitzakiaz. Sobiet Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen arteko gerra hotza gori-gori zegoen, eta Afrikako paraje urrunetan nork bere eskumutilak erabiltzen zituen.

Castrok telebistan eman zituen Kubak Angolara bidalitako soldadu, tanke, taktika eta abarren xehetasun asko, tartean hau: Hegoafrikak bonba atomikoak zeuzkala uste zutenez, unitate kubatarrek horren

NJR ZA argazkilariak sinatzen duen irudian dager Hegoafrikako Pelindaba ikerketa nuklearren gunea, gaur nazioarteko erakundearen kontrolpean ari dena. 1970eko hamarkadan bi zulo sakon prestatu zituzten hemen, leherketa atomikoak egiteko asmoz, eta 1980ko hamarkadan leku honetan bertan elkarlanean jarraitu zuten Hegoafrikako militarrek eta Israeldik iritsitako adituek, hegazkinetik jaurtita bezala misilez eramanik lehertzeko moduko bonba atomikoak ekoizteko. Sei-zazpi buru atomiko edukitzera heldu zen Pretoriako gobernu arrazista, baina Nelson Mandela agintera iritsi zenerako desagerrarazi zituzten. Alex Wong-en argazki txikikoa Shimon Peres da, Nobel Saria irabazia, gaur Israelgo presidentea dena eta 1975ean –orain ezagutu diren agiri arabera Pieter Botha presidente hegoafrikar gorrotatuak bidalitako jeneralarekin negoziatu zuenean– defentsa ministro zena.


arabera antolatu zituztela frontean, bonba atomiko bakar batek denak suntsitu ez zitzaion. Bonba horien inguruko galdera egin zion Walter Martinezi.

Kazetari klasifikatzen zaila den Martinezek bonba horien inguruko ixtorio pare bat kontatu zuen, tartean honakoa: 1979ko irailean AEBetako sateliteek bi *flash* edo leherketa atzeman zituztela Hegoafrika eta Antardida arteko itsasoan eta haien esplikazio nagusi oraindik erabat argitu gabea dela hegoafrikarrek israeldarren laguntzaz egindako bi leherketa nuklear zirela. Hortik aurrerakoa bidean; merezi du.

Vela sateliteak ikusi zuena

*The Guardian*ek plazaratu duen agiriak Hegoafrikako arrazisten eta Israelgo gobernuaren arteko harremanen une jakina aipatzen du, 1975ekoa. Orduan dozena erdi bonba nuklearren salerosketa lotzen saiatu ziren Suitzako Zürichen, antza denez tratua itxi barik.

Hala ere, Sasha Polakow-Suranskyk elkarrizketa batean argitu du liburuan hori baino datu esanguratsuagoak eskaini dituela. “Adibidez –erantzun dio *Just Journalism* blogaren egileari– ‘Chalet’ misilen proiektuaren inguruan 1980ko hamarkadan dozenaka israeldar aritu ziren Hegoafrikan bonba ato-



mikoa antolatzen laguntzen. (...) Israeldarrek jartzen zuten teknologia guztia. Ematen dudana beste informazio hau ere garrantzizkoa da: Israelek Hegoafrikari uranioa erosten ziola Nazio Batuen Erakundeak erregimen honi ezarritako enbargoa hautsiz”.

Wikipedian irakur daitekeenez –eta entziklopedia aske hau ezagutzen duenak badaki tartean Israel dagoenean zein tentuz neurtuta edukitzen dituen sarrerak– Hegoafrika 1960ko hamarkadatik kasik *apartheida* 1994an amaitu arte aritu zen arma nuklear, biologiko eta kimikoak lantzen. 1976an, hau da, Zürichen israeldarrei bonbak erostea lortu ez eta urte batera, prest zituzten bi zulo handi Kalahari desertuan

probak egiteko, bata 385 metro sakon, bestea 216. Erregai nuklearra lortu baino lehen prest zeuzkaten misilak osatzeko lantokiak ere.

Sobiet Batasunak garaiz atzeman zituen ahaleginok, albisteak emanez batetik bere aliatuei –Kuba zen horietarik bat– eta baita arerio zituen AEBei ere. Ikusia zegoen Hegoafrikak nola edo hala lortzen zuela Nazio Batuen Erakundeak ezarritako bahimendua haustea. 1979ko irailaren 22an gertatu zen *Vela Incident* izenez ezagutzen dena.

Egun hartan Vela Hotel satellite iparramerikarrak *flash* bikoitza atzeman zuen Hegoafrikatik Antartidarako itsasoan. Hura zer izan ote zen eztabaidak segitzen du oraindik. Batzuentzako satelliteak oker ulertu-

tako efektu optikoa izan zen. Meteoritoren bat izan ote zen ere aipatu zen, baina azkar baztertu zen. Aldiz, askok uste dute Hegoafrikako militarrek Israelgoekin elkarlanean leherketa atomikoa eragin zutela Indiako itsasoan, menturaz bapore zaharren baten gainean.

Aste gutxiren buruan Australiako artalde batzuetan Iodo-131 arrastok hauteman ziren eta Puerto Ricoko Areciboko teleskopioak ere leherketa atomikoaren aztarnak detektatu zituen. Hegoafrikako agintariek dena ukatu zuten. 1983an Kalahariko zuloak itxi zituzten baina 1988an berri bat ireki, helburu berarekin.

1990eko hamarkadan dena aldatu zen. Sobiet Batasunak porrot eginda gerra hotza bukatu egin zen, eta harekin aliatuen gaineko *domino eragina*. Bestalde, *apartheidean* gotortutako agintari hegoafrikarrei aldaketa garaia heldu zitzaizen eta honekin larrialdi berria: Nelson Mandelaren ANC agintera iristen bazen, zer gertatuko zen bonba atomikoekin? Geroztik, arma nuklearren inguruko itun guztiak sinatu dituzte Pretorian egon diren gobernuek, zuriak lehenik, ANCKoek gero.

Eta bonbak? Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundearen arabera desarmatu egin zituzten hegoafrikarrek. Raul Castro ez dago hain seguru: agian Israelera eraman zituzten kubatarrentzako ziren sei-zazpi bonba haiek.

Badirudi ANCKo agintariek eman dutela baimena Pretoriako paper zaharrak azaltzeko. Ez du pozik egon behar Shimon Peres laborista zakur zaharrak. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Aingeru Epaltza

Xanpainaren aparra

Nafarroan, jende anitz geunden aspaldi handitik haserrea erakusteko irrikan. Jende anitz, “nor gara gu” errateko gogoz egunero hutsaren pare uzten gaituzten guztiei.

Nork gu gidatua falta. Hilabeteak behar izan ditugu atertzen ez duen ostiko sailari nola edo hala erantzuteko. Hilabeteak, bizi seinaleak emateko. Urte erdia baino gehiago, ganorazko zerbait antolatzeke. Egin egin dugu. Baita uste ez genuen arrakastaz egin ere.

Zenbat jende atera ginen karrikara joan den maiatzaren 15ean Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika salatzeraz? Ezin zehatz jakin. Hango jendetzak handikeria bat botatzeko aukera ematen zuen. Kopuru eder eta borobil bat, biharamunean auzo edo lankide erdaltzalearen muturrera misil baten gisara jaurtitzeko modukoa. Antolatzaileek, ordea, ohi ez bezala, ez dute ibilaldi jendetsuaren baloraziorik batere egin. Parte-hartzaile kopuruaren zenbatespenik ere ez zuten eskaini. *Diario de Navarra* egin du gure ordeaz: 15.000 lagun, itxuraz. Egia izate-ra, Iruñeak aspaldi ikusi duen kale-agerraldirik handiena izanzen zen. Gu apaletsi nahian ari zen, alabaina, nabarristen egunkaria. Gehiago izan ginen, hagitzez gehiago. Halako bi, gutienez; halako hiru, zenbaiten aburuz.

Ekitaldia burututa, besta giroa nagusi zen Alde Zaharreko ostatu eta karrikaburuetan. “Bazen garaia!”, hemen. “Bazen tenore!”, han. Hurrengo egunetan ere, aspaldiko partez, burua tente ibili da nafar euskaltzalea. “Ederra lehengo egunekoa, ezta?”. “Bai jauna, hori jendeketa!”. Geroztik etorri diren ospakizun eta elkarretarazteetan –Sortzenena, konparaziorako, hilaren 23an– nabari izan da goraldi hori, jendez eta giroz, urteetako beheraldiaren ondoan. UPN ere ohartu da, ez zaio batere gustatu. Miguel Sanzek bere politika amini bat ere ez duela



DANI BLANCO

aldatuko jakinarazi digu jadanik. Ikusiko. Aspaldiko partez, motibatua eta mobilizatu dabil hemen euskara zokoraturik ikusi nahi ez duen jendea. Gogo berritu hori adierazteko biderik batere izanzen ote dugu, ordea? Ez da gauza segurua.

Manifestazioak bere korapiloak izan ditu. Lehenbizi, premia sumatu behar zen. Ez zen, nonbait, hain begi-bistakoa. Ez da erraza izan xede eta leloetan adostasuna lortzea. Aspaldi olioztatu gabeko makineria abiarazten, lanak. Urrats horietan guztietan erre da denbora, luzearen luzez lagun bat baino gehiago amorrarazterainokoa. Ahalegin handia egin da, beraz. Eta ahalegina hain handia izanik, logikak nahi zuen horren pareko izatea errentagarritasuna ere. Eguna inportantea baitzen, baina hura bezain inportantea, biharamuna.

Harrigarriki, pankarta tolestearekin ahitu zaizkigu indarrak. Inor ez da gelditu arrakasta kudeatzera. Ez zegoen, nonbait, aurreikusia. Beharbada gehiegizko kalaka ez zen komeni, jendea nazkatzeko beldurrez-edo. Izan den isiltasuna, ordea, ez da normala ez parte onekoa. Errana da, antolatzaileak balorazio triste bat ere eskaini gabe itzuli ziren katakunbeta-ra. Alderdi politikoen


usadioa da bazterrik bazter ibiltzea etekin politiko bila; orain, berriz, doi-doi egin dute adierazpenik. Iduriz, badute aski lan beren proiektuak salbatzen eta elkarren kontra aritzen. Batarekin eta bertzearekin, ez da hedabideetan islatu –are gutiago biderkatu– hemengo euskaltzaleak bere baitan sentitu duen poza. Hainbertze ohitu gara mutu egotera, ez baitakigu gure alegrantziak adierazten ere.

Arrakasta erdia baizik ez da kukurrukuka ibiltzeko balio ez duen arrakasta. Gauzak behin ongi eginen, eta xanpainaren aparrari bezala gertatu zaigu oraingoan ere. Zalapar-ta eta espantuen ondoan, hutsa. Ez dugu biharamunaz pentsatzen duen jenderik. ■

Harrigarriki, pankarta tolestearekin ahitu
zaizkigu indarrak. Inor ez da gelditu arrakasta
kudeatzera. Ez zegoen, nonbait, aurreikusia.
Beharbada gehiegizko kalaka ez zen komeni,
jendea nazkatzeko beldurrez-edo

ASTE HONETAKO

zozketa



Esait

2 kulote (L)
opari

www.esait.org

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo, BIZKAIA

www.divetarpoon.com

2




Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Marina Suredaren amets urratuak

Joxe Belmonte F. de Larrinoa

5 liburu opari

Donostia, GIPUZKOA

www.erein.com

4



Nairobi tarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2231. Argia)

ONDARRE

- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)

AQUARIUM

- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oartzun)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
- Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)

TXOMIN ETXANIZ TXAKOLINDEGIA

- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)

MISERIKORDIA ETXEA

- Adur Euskaltegia (Gasteiz)
- Gipuzkoako Ikastolen Elkarte (Donostia)
- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)
- Jose Mari Balerdi Munduate (Alegia)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

UNE CD

- Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)
- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Joxe Mari Lasa Goenaga (Zarautz)


Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak *José Pastillo*ren eskutik



EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak
ez badituzu eskuratu,
eskatu orain.
Hirugarren
alearekin batera
jasoko dituzu.



EGIN ESKAERA
ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea:

FAGOR
www.fagor.com



www.TTARTALO.com

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria